



ARGIA



TURISTIFIKAZIOAREN AURKAKO BORROKA

Alternatibak eraiki hiriak bizigarri egiteko

26-31. orrialdeak



**Amerikarrek
utzitako oinatz
erradioaktiboa**

12 | GROENLANDIA



**"Itsasoa ez da
definitzen, itsasoak
definitzen zaitu,
itsasoak egiten zaitu"**

16 | MIKEL EPALZA



**"Netanyahu ez da
geldituko Gaza
guztiz ezabatu arte"**

32 | MIKEL AYESTARAN

ZIBURUKO 6. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 7AN



ANTOLATZAILEAK

ARGIA

BALTSAN
ELKARTEA

PARTAIDEAK

DOMINILE
ELKARTEA

EUSKAL
IRRATIAK

elke

EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

ZIBURU
CIBOURE

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ILUSTRAZIOA: **XABIER SAGASTA**

Iritziak

- 21 | MIKEL ZURBANO
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | KARMELE GISASOLA
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | BEÑAT MUGURUZA

Finkoak

- 36 | GORPUTZ HOTSAK
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | DENBORA-PASAK
- 52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

16 | MIKEL EPALZA

Itsasoa egin du apaiz lana eta marinelen ondoan eman du bizia Haltsuko (Lapurdi) Mikel Epalzak. 1936ko gerrako errefuxiatuen semea, 2014an bere etxean bildu ziren ETAkoak eta nazioarteko ikuskariak armak entregatzeko.. Mahai horretan bertan egin dio elkarrizketa Jenofa Berhokoirigoinak eta mintzatu da itsasoaz, Elizaren gehiegikeriez, politikagintzaz...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Beren oinatz erradioaktiboa aspaldi utzi zuten Groenlandian amerikarrek

Jenofa Berhokoirigoin

26 | GIZARTEA

Desazkunde turistikorantz, oinarri kapitalistak kolokan jartzeko

Asier Basurto

32 | NAZIOARTEA | MIKEL AYESTARAN

"Palestinako Estatua fikzioa da, bakea bezalaxe"

Maria Ortega

46 | KULTURA | MUNDUKO POESIA KAIERAK

"Irakurleok elebidunak gara, eta kanpoko literaturaren zati bat soilik irakurtzen dugu euskaraz"

Leire Vargas

50 | KULTURA | GEROTIK... GERORA

Aleksandra Kollontairen 'Boltxebike maitemindua'

Paul Beitia

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Nazkatuta

Juntatu milaka gizon batzuk, milaka litro garagardo, etxetik milaka kilometrotara, eta futbola. Zer atera daiteke gaizki, ezta? Nork nahi du pare bat egunez inbaditua izan? Inork ere ez, baina Bilboko alkateak dioenez “Bilbo berriro ere nazioarteko mapan” jarri dute. Horrek prezio bat dauka, zure auzoa aire zabaleko merkataritzagune bilakatu behar da, matxirulo desfasatuek kontsumitu dezaten eta hotelek gaueko 2.000 euroko alokairuak ezar ditzaten. Aburtok dio “pozik, harro, gogobeteta eta eskertuta” dagoela. Auzokideek nazkatuta daudela diote. Plaza Barrian deskontrola barreiatu bitartean, metro gutxira ospatzen ari ziren Alde Zaharreko jaietako txosna batean udaltzainen mehatxuak ari ziren jasotzen, generadore bat erabiltzeagatik. *We are different, we are Basques.*



Aroztegiko epaiketa: sorgin ehiza modernoa

 XABIER LETONA BITERI

Aroztegiko epaiketaren akusazioen –fiskaltza eta akusazio partikularra– idazkiak irakurrita, pentsatzekoa zen epaiketan aterako zituztela froga argiagorik, horrekin bakarrik talde kriminalaren akusazioa oso larria baitzen. Ez ba, bost eguneko epaiketa zuzenean jarraitu ondoren, argi ikusi ahal izan zen fiskaltzak –zeresanik ez akusazio partikularrak– ez zuela ezer gehiago erakutsi auzipetu bakoitzari honako zigorra eskatzeko: talde kriminala osatzeagatik urtebeteko kartzela zigorra eta 22 hilabeteko espetxe zigorra derrihortze edo bortxa delituagatik akusatu bakoitzarendako.

Epaiketan ikusitakoaren arabera, zer gertatu zen 2021eko apirilean Lekarozko Aroztegiko obren bueltan? Bate-tik, desobedientzia zibilaren eremuko gertaera klasikoak, funtsean honakoak: makinaren aurrean jartzea eta haien lana oztopatzea, akanpada guztiz baketsu bat obren eremuan, eta horiei zabalkundea emateko jarduera mediatikoa. Bestalde, egun horietan izan ziren ere makinaren aurkako sabotaje txikiak: makinaren sar-railak poliuretano aparrez ixtea, gurpil zulaketa gutxi batzuk, pintaketak makinetan, dumper baten lapurreta (hurrengo egunean itzuli zutena), edo zuhaitzetan iltzeak sartzea motozerren lana eragozteko. Tankera txikiko irain eta mehatxuren batzuk ere izan ziren agian, beti ere nork egiten zituen zehaztu gabekoak, eta ez akusazioak irudikatu nahi izan zuen larritasunarekin. Kito.

Fiskaltzak halako kontakizuna eraiki du gertaera horietatik: “Batzuek ekintza baketsuak egiten zituzten –auzipetuek– eta besteek biolentoak, baina guztiak dira talde kriminal berekoak, eta guztien helburua da Aroztegiko proiektua hondoratzea; horretarako talde horretan antolatzen dira, funtzio banaketa argi eta zehatzekin. Hemen zazpi auzipetu ditugu, baina askoz gehiago dira”. Batetik, fiskalak ez zuen zehaztu talde kriminala zein den; eta bestetik, bati ezinbestean datorkio “Dena da ETA” garaia oinarritzen, espainiar demokraziaren zutoin



X. LETONA / ARGIA CC BY-SA

Zigor kodean horrek ez du balio, delitu bakoitza pertsona zehatzekin lotu behar da, epaiketa honetan egin ez dena

ezin ahulago eta autoritarioak erakutsi zituen estrategia injustu –baina eraginkor– hura. Disidentziaren aurka egiteko oihartzun hura gaur egun noraino iristen den ikusiko dugu epai honetan.

Baina zigor kodean horrek ez du balio, delitu bakoitza pertsona zehatzekin lotu behar da, epaiketa honetan egin ez dena. Zerbait zigortzekotan, beraz, sabotaje txiki horiek lirateke, baina haien egileak bilatu eta auzipetu behar horretarako. Desobedientzia zibilaren eremuko beste horiek, izatekotan ere, isunekin bideratzekoak lirateke, funtsean hainbat greba eta mobilizaziotan gertatzen diren trafiko mozketen berdintsuak baitira.

Epaiketak aurrera egin ahala, auzitegi korridoreetan askok aipatzen zuen frogarik gabe auzipetuak ezingo zituztela zigortu, baina amaieran fiskalak eta akusazioek haien eskaera gogorrekin jarraitu dute eta, beraz, zigor aukera

mahaiaren gainean dago. “Sorgin ehiza” atera zuen akusatueta batek areto-ara defentsaren galderei erantzunez, eta bai, ikusitakoarekin epaileak zazpikotea talde kriminaltzat jotzea ebatziko balu, gorputzen erreketari ekiteko egur piloari su ematearen gisakoa litzateke.

Aroztegiko proiektuak behin ere ez du izan sostengu handirik Baztanen, baina haren sustatzaileen jauntxokeriak eta baldarkeriak baztandarren kontrakotasuna biziki areagotu dute; eta esan liteke sustatzaile politiko izan den Geroa Bairen eta Nafarroako Gobernuaren deserosotasuna ere gero eta agerikoagoa izan dela denborak aurrera egin ahala.

Epaiketaren muinera joz, Diru Jauna ere agertu zen aretoan. Ikuspegi desberdinarekin, baina akusazioek eta defentsak biek ala biek onartu zuten haren garrantzia: “Gure bezereok milioika euro inbertitu dituzte proiektu honetan eta orain gelditu dago, mehatxuak bere horretan dirauelako”, zioen akusazioak. “Palacio de Arozteguia SLk bai ala bai talde kriminalaren akusazioa atera behar du epaiketa honetatik, horrekin Nafarroako eta Espainiako gobernuen aurka daraman auzi administratiboan 43 milioi euroko kalte-ordaina ateratzeko”, ihardetsi zion defentsak. Epaiketa epaiaren zain dago. ●

MELOI SALTZAILEA

Ezin dut gaia aldatu



JUNE FERNANDEZ

Bilboko *hooligan* inbasioari buruz idatz neza-keen, baina herri txiki batean bizi naiz ni eta ez dut sufritu. Euskaraldiari buruz idatz neza-keen, eskerrak emateko euskarari bizkarra ez ematen lagundu gaituzuenoi, baina ez da hori gorputzak eskatzen didana.

Egunak daramatzat gai bila; badirudi errepi- katzea porrota dela asteroko zutabegilearentzat. Agian errepikapena da behar duguna. Errepikatu behar dugu genozidio baten lekuko garela. GENO- ZIDIOA. Sonar jaialdiko komunikazio arduradunek saihestu duten hitza; “katastrofe humanitarioa” esapidea baliatu dute, eragilea tanta hotza bezalako fenomeno bat izango balitz bezala, eta ez ISRAEL.

Hori izan daiteke nobedadea, zutabe hau be- rritzeko albistea: *El Salto* hedabideari esker jakin dugu KKR funtsak, Israelen aldekoak, erosi dituela Espainiako Estatuko festibal mordoa, tartean Viña Rock eta Sónar bera. Fermin Muguruza bezalako artistek iragarri dute ez dutela parte hartuko, eta baten batek, erabaki hori ez hartzea justifikatzeko “kantzelazio-kulturan” kokatu du boikot kanpaina (emakumea da, katalana, eta nire burbuila feminis- tan oso estimatua).

Bitartean, Gazan: “Israelgo Armadak Alaa Al-Naj- jar doktorearen hamar seme-alabetatik bederatzi hil ditu asteburuan, bere etxean. Zaharrenak 12 urte zituen. Ospitalean lanean ari zen, eta hara iritsi ziren gorpuak eta zauritutako lagunak, besteak bes- te, senarra eta bizirik atera zen haur bakarra”. Olga Rodríguez kazetariaren aipua da, eldiario.es-eko bere azken artikuluko. Izenburua: “*Ronda cosméti- ca en la UE para salvaguardar la imagen ante el ge- nocidio en Gaza*” [Erronda kosmetikoa EBn Gazako genozidioaren aurrean irudia babesteko]

Barkatuko didazue, baina ezin dut gaia aldatu. Ezin dugu gaia aldatu.

*

Post-data: Layli Colorado izeneko emakume beltz eta migratu batek eraso poliziala jasan du Valentzian, bere hiru umeen aurrean, identifikazio arbitrario bati uko egiteagatik.

Bigarren post-data: Abdoulie Bah izeneko gazte bat hil du Espainiako Poliziak Kanaria Handiko aireportuan, eta Gobernuaren delegatuak babesa adierazi die poliziei.

Barkatuko didazue, baina gai hori ere errepikatu behar dut, tamalez. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Eragozpenak errepidean



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Pasa den asteko berria dugu: Irunen 67 urteko garraiolari bat hil zen, kamioia kargatzen ari zela. Errepidean izan balitz, “eragozpenak errepidean” entzungo genuke; ondoren, baxu antzean, “kamioilari bat hil da istripuan”. Gipuzkoa aldean trena hartzea ezinezko misioa bihurtu den honetan, laneko erlojuaren tiranian bizi diren milaka langile hasperen egiten imajinatu ditut: “Berriz ere N-1 errepidea kolapsatuta!”.

“Lan istripua” beharrean “errepideko ezbeharra” moduan izendatzea krudela da. Izan ere, errepideetan gurutzatzen edota aurreratzen ditugun kamioitzar horietako bakoitzak drama bat ezkutatzten du. Luzaroan ikusi gabeko familia, azpikontrata baten azpikontrata batek azpikontratutako autonomia, paperak justu-justuan dituen, dirua aurrezteko gurpilak gasta-gasta eginda bidaiatzen duena, nagusiak esandako ordutegiak bete ahal izateko manipulaturako takografoa duena, abiadura mugatzeko gailua desaktibatuta duena... Kamioilariak ez dute arriskatzeko beraien bizitza plazer hutsagatik. Denbora aurrezteko plastikozko ur botiletan egiten dute pixa, dirua aurrezteko kamioian egiten dute lo, ez dago ganorazko otordurik. Akaso, lotara joan aurretik tragoxka bat.

Garraiolarien lan-istripu hilgarrien zerrendara jo dut informazio bila: 2021etik hona, 43 garraiolari hil dira (gutxienez). 2025ean, 8. In-itinere gehienak, baita ibilgailuak harrapatuta edota, Irungoa bezala, kamioia kargatzeko lanetan ere. Garraio enpresa handien biltegietan ere gero eta okerragoa da egoera. Prekaritatea kanpoan eta barruan.

Sindikalizatzeko eta antolatzearen sektore oso konplikatuak da garraiolariena. Akaso, sindikatura afiliatzeaz gain, kontsumitzaile eta gidari gisa has gintezke banatzaile eta garraiolariari begirunez begiratzen. Amazon, Dachser, DHL, SEUR edo beste edozein marken atzean miseria ezkutatzeko delako. ●



RTVE S

Nazioarteko aktibisten martxa Egipto eta Gaza arteko mugara

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Ekainaren 13an hasita 50 kilometroko martxa egingo dute hiru egunez Egiptoko Sinaiko basamortuan barrena Rafahko pasabidera arte, Gazako muga irekitzea eta genozidioa gelditzea exijitzeko. Momentuz munduko 32 estatutako 2.200 pertsona inguruk eman dute izena, eta horien artean dozena bat euskal herritar dago. Martxara batzeko aukera zabalik dago oraindik. Informazio guztia marchtogaza.net webgunean dago eskuragarri, eta hortik eman dezake izena interesa duenak.

Palestinaren aldeko Sumud, Gazara Bidean eta Askatasunaren Ontzidia nazioarteko ekimenen elkarlanaren ondorioa da martxa. Ekimena iragartzeko lehen komunikatuan, maiatzaren 21ekoa, horrela deskribatu dute Gazako egoera: “Gazako Zerrendaren aurkako kanpaina genozidan, Israel goseaz erabiltzen ari da suntsipen masiboko gerra arma gisa. Dagoeneko 11 aste bete dira Gazako Zerrendara elikagaiak, botikak, ura eta funtsezko beste hornidura batzuk sartzeko blokeo gogor bat gertatu zenetik, eta bertan dauden nazioarteko erakunde guztiak ohartarazi dute erreserbarik gabe geratu direla. Israelgo armadak laborantza eremu eta abelburu gehienak ere suntsitu ditu, bertako ekoizpena sarraskituta. Ahulenak haurrak dira –hamarnaka hil dira gosez–, haurdun dauden emakumeak eta bularreko haurrak, eta Zerrendako palestinar guztiak gosetearen mehatxupean daude. Milioi erdi bat berehalako heriotza-arriskuan, NBEn arabera”.

Martxan parte hartuko duen Palestinaren aldeko militanteetako bat da Agus Gorbea gasteiztarra, berak azaldu dizkigu ekimenaren nondik norakoak. Ekainaren 12an Egiptoko hiriburu Kairon elkartuko dira nazioarteko gainontzeko aktibistekin, 13an Al Arish hirira bidaiatuko dute, eta handik abiatuko dute martxa. “Al Arish hiritik Rafahko pasabidera 50 bat kilometro daude, Sinaiko basamortuan zehar. Errepide bakarra dago eta bertatik egingo dugu bidea, egunero 17-18 kilometro egingo ditugu. Hango kideek esan digute lehen edota azken orduan egingo dugula oinez, bestela beroa gehiegizkoa delako”. Oinezko martxa ez da izango egun horietako ekimen bakarra. “Printzipioz, egun horietan ontzi bat ere abiatuko da itsasotik”.

Mugan bi egunez egotea aurreikusi dute, bi aldarrikapen nagusi egiteko: “Genozidioa amaitzea, eta muga zabaltzea murrizketarik eta mugarik gabe”. Martxaren antolakuntzatik gogoratu dutenez, “hiru mila kamioi daude Rafahko pasabidean zain, elikagaiez, botikez eta beste funtsezko hornigaez gainezka, eta bi milioi palestinar baino gehiago goseak, hesiaren beste aldean”.

Egiptok momentuz ez du posizioz hartu martxaren aurrean, eta Gorbeak ez du konfiantza handirik agertu joka dezakeen paperaren inguruan: “Egipto diktadura militarra da, sionistekin harremanak ditu, eta Rafahko mugan Israelgo soldaduak daude”. ●

1.000 milioi

euro zorpetzeko lege proiektua onartu du Eusko Legebiltzarrak, "zientzian, teknologian, enpresan eta industria sektorean eragiteko". Naiz-ek jakitera eman duenez, Eusko Jaurilaritzak KPMG Asesores SL enpresari eskatu dio plana garatzeko, zeinak duela gutxi Arantxa Tapia Industria sailburu ohia kontratatatu duen.

65.935

etxebizitza turistikoren iragarkiak webgunetik kentzeko agindu dio Espainiako Gobernuak Airbnb-ri Espainiako Estatuan, araudia betetzen ez dutela egotzita. Tartean dira Euskal Herriko zenbait.

231.000

eguzki-panel jarriko dituzte Arabako hego-mendebaldeko ehun hektareatan zehar, Armiñonen. Arabako zentral fotovoltaiikorik handienari (Euskal Herriko bigarren handienari) baimena eman dio Espainiako Gobernuak.

"39 ikasgela berean, fisikoki ezinezkoa da"



IÑAKI LEKUONA

Kattalin Elizalde kolegioko zuzendaria. Seaskak salatu du Frantziako Hezkuntza Ministerioak eskainitako irakasle postuak ez direla nahikoa hurrengo ikasturtean izango dituzten ikasleen beharrak asetzeko.

BERRIA (2025-05-19)

"ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAK HASIERATIK ETA EGUNERO KUTSATZEN DU"

Errausketen Aurkako Mugimenduak eskatu du Zubietako Erraustegia gelditzea. Salatu dute agente publikoek eta alderdiek ez dituztela kontuan hartzen kutsaduraz ohartarazten duten ikerketak.

2025-05-24

"Herritarron mobilizazioa ezinbestekoa da nazio honek aurrerapausoak egin ditzan"



Gure Eskuk ekitaldia egin du Larhun mendian, Euskal Herria zazpi lurraldez osatutako nazioa dela eta erabakitzeko eskubidea duela aldarrikatzeko, eta ekainaren 7ko mobilizaziora dei egiteko.

2025-05-25

Sabotaje algoritmikoa



DIANA FRANCO EGUREN

Informazio sareetan murgilduta, aktibismo digitalaren inguruan zenbait informaziora heldu naiz. Aktibista digitala pentsatzen dudanean, antolaketa moduetan ere pentsatzen dut, denok ez diegu-eta arazoei berdin heltzen. Batzuek aktibismo digitalari komunikazioatik heltzen diote, beste batzuek ezagutza komunitateak sortzen dituzte, eta badira ere tresna eta azpiegiturretan eragitea bilatzen dutenak, besteak beste.

Palestinako aktibismo digital foroa izan berri da. Honako gaiak landu dira: zelan lortzen dute algoritmoek dugun mundu ikuskerari forma ematea? Zer gertatzen da isildua? Zelan sortzen da bazterkeria adimen artifizial sistemetan? Eta zelan erantzun dezakegu, desinformazioa erabiltzen denean gezurrak kontatzeko edota gizagabetzeko?

Beharbada, Palestinako herriarekiko gurean dugun jarrera zabalduea da genozidioa egiten ari direla. Israel fanatiko psikopata talde batek gidaturiko herria dela, Palestinako aberastasuna bereganatzeko zekenkeriak gidatua, palestinarrek gizagabetu dituen talde zitala.

Baina ez da horrela mundu guztian, kontakizunak oso ezberdinak dira adibidez Amerikako Estatu Batuetan. Eta herri horretan zelataritzaren praktika gailendu da gobernuaren aldetik. Ugazabaren tresnek ez dute inoiz nagusiaren etxea desmuntatuko esaldiari tiraka, AEBetara loturiko tresna digitalak ez erabiltzeko praktika zabaltzen hasia da herri hartan, eta ezagutza zabaltzeko, alternatibak eskaintzeko zerrendak sortzen hasi dira.

Adimen artifizialak kontakizunetan eragiteko duen ahalmena eragozteko, tresna alternatiboak erabiltzeaz gain, adimen artifiziala sabotatzeko tresna zerrendak ere agertzen ari dira, adibidez, Algorithmic Sabotage Research Group (ASRG) taldeak sorturikoa. Euren hitzetan, "egun gizatasunarentzat kaltegarriak diren praktika algoritmikoen kontra egiteko eta dugun eredu digitala berrirudikatze beharrezkoak diren tresnak". ●

Red hedabidea itxiarazi dute

AXIER LOPEZ

ARGIAkharremanazuen Red.media hedabidearekin. Beren bideoak euskaratzeko baimena eman zigten eta gure irakurleentzat interesgarri ziren edukiak ekartzen genituen gurea. Beste norabidean ere, Red-ek hartu izan ditu ARGIAko edukiak eta Euskal Herriari lotutako edukiak argitaratzean, kontrasteak egiteko eta iturriak bilatzeko harreman periodistikoak ohikoak ziren. 2023an sortu zenetik, konpromiso antiinperialista, antikapitalista eta aurrerakoi argiak gidatu du proiektua. Alemaniako eta nazioarteko askotariko herri mugimenduei buruzko albisteak eta erreportajeak egin dituzte, fokua bidegabekeriaren jarritan. Hilaren 23an jakinarazi zuten hedabidearen itxiera.

"Alemaniako Gobernuak eta sionisten aldeko agendarekin lerrokatutako komunikabideek bultzatutako despresetigo eta errepresio kanpaina luze batek" behartuta, hedabideari amaiera eman behar izan diotela salatu dute. Egozten diote Alemanian palestinaren aldeko protestak "sustatu" izana, Berlingo Humboldt Unibertsitatearen okupazioa, edo "terrorista palestinarrei" ahotsa ematea Ekialde Hurbileko politikari eta aktibista batzuk elkarriketatzeagatik.

Haien aurkako beste akusazio nagusia da Red.media errusiar interesen proxy-a izatea. Errusiari eta Ukrainako gerrari buruz Red.media duen jarrera argia dela azpimarratu dute:

Errusia "bere interes geopolitikoek mugiarazten duten potentzia inperialista bat da, AEB, Txina, EB eta NATO bezalaxe". Red.media Ukrainaren inbasioa publikoki kritikatu izan du, eta gaineratu dute argi adierazi izan dutela gerra bloke inperialisten arteko gatazka dela Ukrainakoa. Red-eko langileen babesa Ukrainan, Errusian eta mundu osoan "inperialismoari aurre egiten" dioten langileentzat dela argitu dute.

GOGOZ KONTRA ITXI

Red.media-k lantaldearen segurtasunaren aurkako mehatxu zuzenak jaso izana salatu du, baita lankide batzuen bizitzaren aurkako mehatxuak ere. "Errepresioa gero eta handiagoa denez, eta taldearen segurtasuna ezin dugunez bermatu", itxi egin behar izan dute hedabidea. "Ez da gure borondatez hartutako erabakia izan", azpimarratu dute, eta "errepresioaren normalizazio globalaren" barruan kokatu dute, "genozidio baten aurka ahotsa altxatzea delitu bihurtzen duena".

X eta Telegramen dituzten kanalak aktibo mantentzeko asmoa dute, boluntarioen lanaren bidez. Palestinan estatu demokratiko bakarra sortzeko eskaerari tinko eutsi, eta inperialismoaren, kolonialismoaren, apartheidaren eta zapalkuntza mota ororen aurkako borrokarekin jarraitzeko deia egiten dute. ●



Erriberako Euskararen I. Eguna

INFOARGUEDAS

ARGUEDAS / Erriberako Euskararen Egunaren lehen edizioa ospatu zuten Arguedasen, joan den maiatzaren 17an. Kultura, auzolana eta festa uztartu ziren, baita Erriberako nortasuna ere, euskara oinarri. Aurtengo martxoan, hainbat norbanako eta elkarteren artean Erriberan Euskaraz sortu zuten, eskualdean euskara sustatzeko helburuz. Bada, elkarte berriaren lehen ekintza izan da hau jaialdia.



MOTZEAN

Iratxe Sorzabalen aldeko epaiari helegitea aurkeztuko dio fiskalak. Sorzabalek bere burua autoinkulpatu zuen gutuna torturen ondorioz idatzi zuela ebatzi zuen Auzitegi Nazionalak maiatzaren 8an; fiskalaren ustez "modu boluntarioan eta libre" autoinkulpatu zen.

Bilboko eta Gasteizko jaietan txosna jartzeko aukera "ukatu" diotela salatu du Mugimendu Sozialistak eta "Sorturen ingurune politikoa" egin dute "beto politikoaren" erantzule. Iaz, Bilboko Konpartsek zein Gasteizko Txosna Batzordeak ukatu egin zuten Mugimendu Sozialistaren salaketa.

2023ko abuztuan, Bilbon, Poliziak mantero bat atxilotzea eragozten saiatu zen emakume bat. Udaltzainek salatu zuten agenteetako bati ostikoa eman ziola, baina kontakizun hori ezbaian jartzen du bideo batek. Orain, hiru urteko espetxe zigorra eskatu dute emakumearentzat.

Elhuyarrek kontatu duenez, Gasteizko teilatuetan panel fotovoltaikoak jarrita, hiriak kontsumitzen duen elektrizitatearen % 38 lor daitekeela kalkulatu du EHUKo Ekopol ikerketataldeak. Beraiek garatu duten metodologia bat erabiliz iritsi dira ondorio horretara.

BEREN OINATZ ERRADIOAKTIBOA ASPALDI UTZI ZUTEN GROENLANDIAN AMERIKARREK

Donald Trumpen inperialismoaren eta harrokeriaren adibideetariko bat dugu Groenlandia erosteko daukan xedea. Baina lekuko beharrak eta nahiak entzun gabe, aspaldi kokatu ziren Artikoko lur izoztu horretan amerikarrak: bertako inuitak haizatu eta Thulé izeneko base militarra eraiki zuten 1943an. Hortik 240 kilometrotara, gorkeza,

Iceworm proiektu militarra ere bideratu zuten, 600 misil nuklear glaziarpean batzeko asmoz. Orduz geroztik, izozpean dira pila-turik ur erradioaktiboak, produktu kutsakorak eta milaka litro fuel-olio –klimaren beroketagatik, noizbait azaleratu daitekeen koktel toxikoa–. Zor ekologiko alimalea dute AEBek groenlandiarrei begira.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

AEBek txeke bat egin nahi badute, egin dezatela: beraien ingurumen-zorra ordaintzeko lehen urratsa litzateke, groenlandiarrei, Danimarkari, Europar Batasunari eta ondasun komunari", zioen 2019an Jean Malaurie etnologo, geografo eta bizia Artikoko gaindi eraman-dakoak. 2022ko 22an zendu zen 101 urterekin, baina hor gelditzen zaigu 1955an plazaratu zuen *Les Derniers rois de Thulé* (Thuleko azken erregeak) liburua, etnografiako klasikoaren artean sailkaturikoa, eta inuiten bizimoduaren kontakizunaz gain, inperialismoaren eta kolonialismoaren kritika ere badena. Donald Trumpek Groenlandia erosteko zuen asmoa komentatzen zebilen hori erraterakoan. 2019an jadanik hori

zuelako gogoan Trumpek, eta badirudi bere bigarren agintaldian gauzatu beharrekoen zerrendan daukala Groenlandia bereganatzearena.

Sosaren bidez erosi nahiko luke groenlandiarren baietza, 10.000 dolar banatuta urtero bakoitzari –gisa horretara, Danimarkak Groenlandiari urtero banatzen dion 600 milioi dolarreko dirulaguntza konpentsatzeko–. Komunikazio kanpaina bat abiatzekoa dute bertan, AEBen menpe diren Alaskako inuitekin duten hurbiltasuna lehen lerroan jarrita, baita amerikar bihurtzeak ekarriko lituzkeen abantaila ekonomikoak goraipatuta –"aberats bihurtuko zaituztegu", adierazi berri die Trumpek–. Ez da lehen aldia, haatik. Mundua *monopoly* partida bat bailitzan

bezala ikusi eta bere lurren %81 izotzez estalita dauzkan iparreko irla hori berenganatu nahian dabilta aspaldian amerikarrak. 1867an erosi nahi izan zituen Groenlandia eta Islandia Andrew Johnson amerikar presidenteak, baina, Danimarkako Erresumak ez zuen horrelakorik onartu. 1946an, berriz, Harry S. Truman presidenteak zuen eskaintza luzatu, 100 milioi dolarren trukean. Baina berriz ere ezetza.

Alta, militarki behintzat, ongi kokaturik dira amerikarrak Groenlandian. 1943an eraiki zuten Ipar-mendebaldeko kostan Thulé izeneko armada basea –2023an Pituffik izenarekin berrizendutako zutena–. 1941ean, Alemaniako armadak Danimarka okupatuta zeukala, Groenlandian baseak ezartzeko baimena



IZOZPEAN Hiru kilometroko tunela zegoen glaziarren azpian eraikita.

Hilero 120 tona elur edota izotz kendu behar izaten zituzten basea erabilgarri izateko. Argazkia: Wikipedia

eman zien Washingtingo Danimarkako enbaxadoreak AEBei. 1943an eraiki eta hortik urte batzuetara, 1951n zabalduko zuten basea, NATOren babesarekin.

Groenlandia lurralde izoztu huts soil gisa kontsideratu eta bertan kokatu ziren, amerikarren eta danimarkarren arteko solasetarik urrun utzita inuitak. Existitzen ez balira bezala egin, bertan instalatu eta lekuko 187 herritarrak haizatu zituzten, aukera eta aterabide izpirik eman gabe –azkenean, galde-tzearen bortxaz, 1999an eskuratuko zuten kalte-ordaina–.

Muturreko baldintzetan aitzina egiteko bizimodua garaturik duen herri

1968ko urtarrilaren 21ean erori zen Thulétik hurbil, lau bomba termonuklear zituen hegazkina

aberatsa da inuitena, XIII. mendean Asiatik jin eta bertan gelditu zirenen ondorengoena. Gaur egun 55.000 bat lagunez osaturiko komunitatea da, Da-

nimarkaren menpe dagoena; autonomia gisa egituratutakoa eta independentzia eskuratzeko galdera ere ate joka daukana.

Ondokoa zioen 1993ko elkarriketa batean Jean Malauriek: "Mendebaldearen kolonialismoaren sinboloa izan da, modu shakespearean, [Thuléko] operazioa: inolako abisurik eman gabe, ezer eskatzen ez zuen herriaren erdian kokatu gara. Ze zerikusi zuten Thuléko eskimalek komunismo sobietarraren eta Mendebaldekoen arteko arazoekin? Ezer ez". Inuit adiskideekin Ellesmere irlan urte bateko espedizioa eraman ondoren Thuléra itzuli eta glaziar baten

puntatik ondokoa ikusi zuen: "Ke eta errauts artean, burdinezko eta aluminiozko hangar eta aterpez osaturiko hiri bat ageri zen, eguzki izpien eraginez itsutzen gintuena. Ordura arte hutsik zegoen lautada batean. Martetarrak *US Air Force*-ekoak ziren. Bost mila gizon etorri berri ziren nik oso ondo ezagutzen nuen inguru hartara".

5.000 gizon armatu, baita Hiroshima eta Nagasaki kiskali berri zituzten *Fat Man* eta *Little Boy* armen ondorengoak ere.

ARMA NUKLEARRA, GLAZIARRAREN PEAN

Nahiz eta horrelakorik ez zaigun kontatzen, uranioak markaturiko herria delako inuitena, eta hori zuen gogoan Malauriek "ingurumen-zorra" aipatzerakoan. Luzaz sekretupean –baita Danimarkako Gobernuari izkutatuta ere– atxikitako Camp Century base militarreko proiektu nuklearra dugu batetik. Thulétik 200 kilometrotara, 1959an altxatu zuten base hori, militarra baino gehiago ikerketa zientifikorako izan behar zuena. Ofizialki, izotzaren pean izatea zen bere berezitasuna. Bazen, bai, ikusgarria, 200 soldaduren egunerokoa glazierraren pean bideratzeko azpiegitura eraiki zutelako: logelak, laborategiak, ospitale bat, kapera bat, zinema areto bat... eta guztia PM-2A erreaktore nuklear eramangarri batek elikatuta.



REUTERS

EZ DA LEHEN ALDIA Publikoki, 2019az geroztik dabil Donald Trump Groenlandia erosi nahian. AEBetako aitzineko presidente batzuk ere nahi izan zuten erosi; azkenik, 1946an Harry S. Trumanek.

Benetako funtzioa estalirik
zeukan glazierraren azpiko Camp
Century baseak. Gordeka,
600 misil balistiko batzeko gune
ezkutua osatu zuten amerikarrek,
bertatik eskuragarri zutelako
Sobietar Batasuna

Gerra Hotzaren bihotzean ginela, beraien puntako ingeniarietza munduari erakustea zuten helburu amerikarrek. 55 hektareako basea muntaturik zuten, glazierraren azpian hiru kilometroko tunelari esker lotzen zituztelarik espazio ezberdinak. Hor eraman zuten beraien egunerokoa 200 lagunek, izotzaren bihotzean gau eta egun. Baina benetako funtzioa estalirik zeukan neurrigabeko azpiegitura horrek: gordeka, 600 misil balistiko batzeko gune ezkutua osatu zuten amerikarrek, bertatik eskuragarri zutelako Sobietar Batasuna. *Icworm* izena jarri zioten proiektuari.

Izotzen mugimendua dela eta, tunelak hondoratzeko arriskua bazen, eta horregatik bertan behera utzi zuten proiektua 1964an. 1967an hetsi zuten ofizialki basea eta ez zuten bururaino eraman ahal izan *Icworm* izugarrikeria. Mantentze-lanik gabe, laster kolapsatu ziren tunel guztiak –hilero 120 tona elur eta izotz baino gehiago mugitu edota kendu behar izaten zituzten basea erabilgarri atxikitzeke–. Eta iraganean gelditu zen, izotzaren pean... 2024ko apirila arte, NASA Ameriketako Estatu Batuetako Espazio Agentziaren hegaldia zientifiko bateko radarak, kasualitatez, glaziarpetik 30 bat metrotara zegoen herrixka detektatu zuen arte.

Hondakin guziak –zaborrak, ur-zikinak, produktu kimiko industrialak, erreaktorea hozteko erabilitako ur erradioaktiboa...– glaziarreara isurtzen zituzten, pentsaturik, izotzak gaina





AFP

EZ GAUDE SALGAI Haserre handia eragin du Donald Trumpen jarrerak. Argazkian "ez gaude salgai" kartela dakarren groenlandiarra, protesta batean.

harturik betirako "desagertuko" zirela. 2016an *Geophysical Research Letter* aldizkarian publikaturiko ikerketa batek argira ekarri zuen 200.000 litro fuel-olio zituztela zisternetan, eta litekeena dela horiek suntsitzea herdoilaren eta izotzaren mugimenduen ondorioz. Bifenilo polikloratuak izeneko substantzia kimikoak dira bertako izozpean hedatuenak eta arazotsuenak, baita 240.000 litro ur erradioaktiboak ere.

Ez zekiten, ordea, hortik hamarkada labor batzuetara klima aldaketak glaziarren urtzea eraginen zuela. 2016ko ikerketaren arabera, 2090 urterako egon daiteke Camp Century erabat aire

Gerra Hotzaren
bihotzean ginela,
beraien puntako ingeniari-tza
munduari erakustea zuten
helburu amerikarrek

librean. Nor arduratuko da aurretik egin beharreko garbiketaz? Horretaz ezer ez zekien Danimarka? AEBak?

Trump bera? NATO? Gaia ez dute lehentasunetan. Litekeena da, beste behin ere, ezer galdetu ez duten inuitak izatea lehen kaltetuak.

ESKANDALUA 1997AN ARGIRA

1997an atera zen argira base horretan pilaturiko arma nuklearren sekretua. Bistan da, eskandalua eragin zuen. Jakin zen, gainera, Danimarkako Gobernuak Groenlandiara arma nuklearrak garraiatzeko isileko baimena eman zuela amerikarrei. 1957ko Hans Christian Hansen lehen ministroaren adierazpen ofiziala urratu zuten orduan, ofizialki, arma nuklearrik gabeko eremu sailkatua zutelako Groenlandia.

Maleruski, ez da amerikarrak utzi-tako aztarna erradioaktibo bakarra: 1968ko urtarrilaren 21ean erori zen Thulétik hurbil lau bomba termonuklear zeramatzan hegazkina. Ofizialki, kontaminazioa mugatzeko lanketa abiatu zuten berehala Danimarkako eta AEBetako gobernuak, eta ez omen zegoen arriskurik ingurumenarentzat eta herritarren osasunarentzat. Afera da, lau bonbetatik bat inoiz ez dutela atzeman, minbizi kasuak azkar-ki emendatu zirela ondoko urteetan Thuléko langileen eta biztanleen artean, eta dena dela, Danimarkako Gobernuak lekukoei inoiz ez ziela onartu mediku jarraipenik.

1951n, Utaaq xamanak bideratu zion Malaurie etnologoari *US Air Force*-ekoei ondoko mezua zuzentzeko enkargua: "Go home, nire jenerala. Thulé inuit-lurra da, bake-lurra da. Ez zarete ongi etorriak". Gaur egunerako ere balio luke, bai armadarentzako, baita nuklearra ekoizteko izozpeko uranioa amesten duten meategi-en-presentzako ere. ●



Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Mikel Epalza

HANKAK LURREAN DITUEN ITSASTAR APEZA



“

PULPITUTIK MINTZO DEN APEZAK
USTE DU EGIA BADUELA, NIK USTE
DUT ISILTZEN IKASI BEHAR DUGULA

”

Ziburuko Azokaren kari, Azokaroan aurkezturiko *Gizatasun arrantzale* (Euskaltzaleen Biltzarra) liburua esku artean hartuta, itsasoan –apez bezainbat arrantzale gisa– eramandako biziaz aritzea zuen xede kazetariak. Baina Maiatz argitaletxeak plazaratu berri duen *Atxik Berrituz* liburua ere ukan dute solasgai, bertan zehazten delako Mikel Epalzak orain arte gorderik atxikitako historiako xehetasun bat: ETaren eta nazioarteko adituen arteko 2014ko otsaileko armen entrega bere etxean egin zela. Etxe horretan hartu gaitu. 2014ko bideo hartan murru zuriak ageri dira, baina errealitatean, argazki, margo eta apaindura koloretsuz beteta ditu paretak.

 JENOFA BERHOKOIRIGAIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Senegaldik sartu berria zara.

Duela urte bat eta erdi izan zen Cysnos arrantza-ontziaren hondatzea, Sokoa-ko harresia jorik. Arcachonetik zetorren ontzia, justu eguberri aitzin, kasik mila kilo arrain bazituen. Patroia, frantsesa, biziki kolpaturik baina salbatua izan zen, eta bertze biak, senegaldarrak, desagertu egin ziren. Ez ziren bakarrik hil, itsasoak irentsi zituen, eta hori biziki zaila da familiendako, dolua egiteko. Alargunei hitz emana nien jinen nintzaiera, eta hori egin dut. Fatou arrantzale zaharrenaren [Karamo] alargunak behar dituen laguntzak ukan ditu, baina Bintaren senar ohia [Moustapha] ez zen deklaratu bardoan. Gazteagoa da, hiru haurren ama da, azken biak, bitxiak, aita sekula ikusi gabeak. Hemengo alargunen eta arrantzale emazteen Uhaina elkartearen partez 1.500 euro eman dizkiot, eta besteari 500 euro. Laguntza handia da haientzat, baina ez da bakarrik sosa, haiekin gertatutakoaz hitz egitea ere da inportantea. Itsasoak batzen gaitu. Izan musulman, katoliko edo erlijio gabekoa, bada erlijio bat itsasotik heldu zaiguna: haurridetasuna.

Itsasoko jendeen apezta zaitugu 1985az geroztik. Baldintza bat jarrita onartu zenuen misioa: itsasoratzea.

Duela 52 urte apezta ninduten Ziburun –ez naiz apezten, apezten naute, apezpi-kuak eta jendeek–. Egun horretan sentitu nuen izugarriko bultzakada herriaren partetik eta Elizaren partetik onarpen bat, euskaldun gisa eta naizen horrena. Itsas Misioari lotua nintzen jadanik eta apezta eta biharamunean itsasortu nintzen, atunketako kanpaina egite-

ko uda guztian. Ziburu eta Donibaneko erretorek ez zuten hori onartu eta kanporatu ninduten Miarritzera. Hamahiru urte geroago etorri zitzaidan apezpiku bera, eta itsasoratzearen baldintzapean onartuko nuela erran nion. Bada salmo bat biziki ederra, 76. salmoa, dioena: "Jainkoak itsaso erdian bide bat egin du, baina ez dugu bide horren aztarnarik". Uste dugu Jainkoa lehorrari, elizari, klerikalismoari lotua dela baina ez da hala. Bada izate bat, nortasun bat, indar bat itsasoan, lehortarrek ezagutzen ez dutena. Aztarnarik gabeko bide hori jende horien arimetan eta bihotzetan bilatu behar da. Itsasoan, mendietan, oihane-tan, hots, gizartetik bazter bizi direnek badute bizi-iturri bat. Hori ez dizu liburu batek erakusten, eskolak ez dizu irakasten; hori ezagutzeko behar duzu haiekin bide egin, beraien grinak, penak eta pozak ezagutu behar dituzu.

Argi zenuen itsasontzikoei ez zenielar mezarik inposatuko.

Ez nintzen itsasoratzen nire egia pulpitutik eta urrunetik sakatzeko eta jendea zapaltzeko; beraiek bizitzen zutena ikertzeko baizik. Haiek didate erakusten Jainkoa. Pulpitutik mintzo den apezak uste du egia baduela, nik uste dut ikasi behar dugula isiltzen. Erakatsi diedana baino gehiago erakatsi didate haiek niri.

Zein irakaspen atxikitzen duzu?

Errespetu handi bat. Arrantzaleak jaun batzuk dira, lehorreko gutik egin dezakete beraiek egindako bizia. Itsasoko bizia biziki gogorra da. Arrainen bizia, korronteak eta beste, jakintza handia dute. Es-

kifaia batean bizitzea ere ez da erraza, dozena bat gizon hain eremu motzean elkarrekin bizitzea, dena partekatuz, solidaritetea bada: ez da sare bat bakoitzarentzat, sare bat dute denen artean. Esperantzaz ere ikasi dut, hiruzpalau egunez arrainik ez ukaitea, baina etorriko direla pentsatzea. Maitasun handi bat ere bada. Lehorretik, emazteak eta haurrek uste dute aita itsasoan delarik urrun dela eta lehorreratzerakoan agertzen dela berriz maitasuna, baina ez, itsasoan maitasuna izugarri handia bada. Haien fedea ere atxikitzen dut. Sinesmena badute, baina kukutua, ez dutelako erakutsi nahi, ahul agertzearen beldurrez.

Zer da itsasoa zuretzat?

Zaila da erantzutea. Lurra eskutan hartzen ahal duzu, baina itsasoa ez, eskapatzen da. Olerkietan itsasoaz mintzo gara, baina berez, itsasoa definitzea zaila da. Itsasoa ez da definitzen, itsasoak definitzen zaitu, itsasoak egiten zaitu. Lurra Itsasoa deitu beharko genuen, %75 itsasoz egina delako. Erranen nuke jendeak batzen dituen eremu bat dela, itsasoko jendearentzako aberri bat bezala. Getarikoa, Istanbulkoa, Lekeitiokoa, Baionakoa edota Dakarrekoa izan, non nahikoa izanda ere itsasoko jendea biziki hurbil sentituko da itsasoko jendeaz. Boga gainetik erraten da itsasoak kontinenteak bereizten dituela eta jendeak batzen. Itsasoaren edertasuna ere aipagarria da: baleak, hegaztiak, arrainak, atunak antxoaren gibeletik... erakusten digu gure planeta biziki ederra dela. Bestalde, itsasoak biziki txiki sentiarazten gaitu, umiltasuna transmititzen digu. Izpiritualtasun iturri bat da.

Aldi berean, lurreko mugak hetsirik, itsasoa trabeskatu nahian bizia galtzen dute anitzek.

Senegalen gazte batzuekin egon naiz eta hori dute ametsa, beraien herrialdeetatik ihes egin, ustez eta European zeru zati bat atzemango dutela. Zerendako irentsi ditugu Afrikako herri guztiak? Hango lurrak eta lehengaiak? Afrikako ekonomia garatzeko afrikarrekin egin beharko genuke bidea. Har dezagun Mbourreko portua: milaka eta milaka tona arrain dituzte, jendea dabil saltzen itsasbazerrean. Hor bada garatzeko manera, baina biharamunean arrainik ederrenak Parisen dira hegazkinez bidalita. Nola garatu haiekin ekonomia hori? Horretan da gakoa eta erronka. Bigarren erronka dugu hemen harrera egitearena. Laguntzen ditugu,

Mikel Epalza

HALTSU, 1946



1946an sortua, Haltsun (Lapurdi) 1936ko gerrako errefuxiatu familia batean, beti politikaz mintzo zen familia batean. Apeza da 1973az geroztik eta Itsas Misioaren ardura hartu zuen 1985ean. Horrela darabizia, marinelen ondoan. Lurre-ratzen denean Sokoako apaizetxea du bizitoki, eta adinean gora egitearen bortxaz, geroz eta gehiago lurretik eramaten du berea. Gazteekin Itsas Gazteria elkarte, emakumeekin Uhaina, Europa mailako marinelen koordinakundea... arrantza munduan egitura kolektibo andana bultzatu izan du. Lurtarrok nekez irudikatu omen dezakegu itsasoko bizia, eta horregatik ere du *Gizatasun arrantzale* liburuaren plazaratu. "Non da Mikel?" galderari "itsasoan" erantzuten zion jendeak, zertan zebilen gehiegi jakin gabe. Liburuarekin misterioa doi bat argitzea nahiko luke. Beti ere, berean baino gehiago, itsas-jendeetan zentratuta soa.

hartzen ditugu mugan, ontzi bat atzematen diegu arrantzari lotu nahi dutenei, eskolaratzen ditugu, Baionako Pausa zentrorra noa anitzetan... Solidarioak izan behar gara eta hor dugu desafio handia, batzuk nahiko lituzketelako Europako mugak hetsi. Zenbat afrikar hil ziren bi mundu gerretan? Milaka! Onak ziren gerran Frantzia defenditzeko eta bakearen fruitua ezin dezakete jasta?

Erresistentziako Eliza da zurea, oldarkorra. Bortxaketak, inposizioak, gehiegikeriak... errazki irauten duzu orri beltz andana dituen antolaketa horretan?

Elizaren burua Jesu Kristo da eta haren biziak, ebanjelioak, betetzen nau. Itsas Misioarekin ere dut lotura azkarra, eta horrek anitz ekartzen dit. Arrantza-leekin bide egite horretan ni ez naiz profeta edo egia-emailea, itsasokoe-kin bilatu dut bidea, eta hori munduan zehar. Egon naiz Asian gaindi, Taiwan-eta, eta hor aldarrikatu izan dugu bestelako mundu bat esklabotasunik gabekoa. Ikusten dituzularik milaka jende ontziratuak, pagarik gabe, familiarik urrun, pasaporteak kendurik... ohartzen zara munduko ekonomia esklabotasunaren gainean eraikia dela. Eta horrek balio du arrantzarentzat, arropentzat, elektronikarentzat... Hori salatzen dugu itsas apostolutzan. Beraz, nik ez dut dolurik, justizia aldarrikatzen dut. Ez baldin bada justiziarik eta errespeturik, ez dut ikusten Elizak zer ekarri dezakeen. Erran behar dut bizian lagungarri izan zaizkidala, batetik, laikoekin egindako bidea, Ekin-tza Katolikoaren ildotik; eta bestetik, azken 50 urteetan bakegintzaren alde dabilzan Euskal Herriko Apez Koordinadora eta Ipar Euskal Herriko Herriarekin taldea.

Hori erranik, noski, Elizan badirela hodei beltzak, ardi beltzak, otsoak eta salatu behar dira, kasatu behar dira. Liburuan kontatzen dut duela 55 urte, Antillasetan irakasle eta irakasleen delegatua nintzela, nola haurrak sexualki bortxatzen zituen gauez fraile batek. Superiorarengana joan nintzen eta gauzak zuzenduak izan ziren, kasatua izan zen ikastetxetik. Haur horien beldur-aurpegiak ikusten nituen, haien malurra sentitzen nuen. Gaur egun oraindik bada gizarte mailan izugarriko problema bat intzestuekin. Frantzian haurren %15ak pairatzen

du eta beren minaren berri ematen badute "haurkeriak" direla erantzuten zaie. Haurra da gizartean den ahule-na, txikiena, eta aldi berean ederrena. Errespetatu behar ditugu haurrak.

Erresistentzia familia batean sorturiko haurra zara.

Haltsun (Lapurdi) sortu ninduten. Aita eta ama, baita aitatxi-amatxiak ere han ziren iheslari. Aita gudarien komandanteetariko bat zen, preso izana, heriotzara kondenatua, eta aitatxi-amatxiak ere ez zuten sekula beraien herrira itzultzeko paradarik ukan. Sortzetik irentsi dudana esnea euskaldun esnea izan da, sufritu duen nortasun batena, baina aldi berean, beti alaitasun batean, karnabaletan eta gero bestetan kantatuz, txistua joz, beste iheslari batek, Alfonsok, pianoa bazuen... Galtzaile ginen, baina garai-leak ariman, bihotzean eta esperantzaz, Euskadi askatuta berriz ikusiko genuelakoan. Aita Gernikako Brigadan sartu zen 1945ean, faxismoaren kontra egiteko eta Gernikara joan eta gure herria salbatzeko. Nik beti eza-gutu dut mahai luze bat etxean, jendea etortzen zen arroltze batekin, esne pixka bat gehitzen zitzaion eta arroltze moleta egiten zen. Txikia nintzen eta ikusten nituen jaten, gose handiz, eta geroztik maite ditut biziki arroltze moletak! Bazen ere mahasti bat, arnoa bagenuen, zapaltzen genuen mahatsa... Guzti horrek ematen ditu nortasun bat, ematen dizkizu erroak.

Politikaz mintzo zineten etxean?

Beti. Francoren itsuskeriak, nor zen preso, nor libratu zuten... Agirrerekin biziki lotua zen aita, beraz, beti aipatzen zen politika. Gero txikia zirelarik gehiago ikusten dituzu ondoko frontoia eta pilota jokoa. Baina, politika baino gehiago, aberriaren maitasuna dut oroitzen. Behin ikusi dut aita negarrez; Angelun ginen, dantza ikusgarri batean eta *Agur Jauna* kantatzerakoan ikus nuen negarrez. Gerlan eta presondegi-tan galdu zituen lagunak zituen gogoan. Itsuskeriak bizitutakoak ziren. Fedea ere bazen etxean, otoitz egiten genuen egun guztiz.

Gaur egun bizi dugun faxismoaren gorakadaz zein gogoeta duzu?

Nik ez dut pertsonalki faxismoaren zapalkuntza hori sentitzen; baina bai, ikusten dut politikaren esparruan.

Uste dut denok dugula faxismoa gure baitan; horrekin erran nahi dudana da ez badiegu zapalduerik elkartasuna bideratzen eta ez badugu aniztasunaren alde egiten, orduan faxismoak irabaziko duela. Garaian faxismoari aurre egitea zuten helburu nagusia, baziren militante anitz. Gaur egun gutxiti dira, edo doike, beste manera batez egiten da militantzia. Gaur egun faxismoa oinarritik dator, bakoitzak harresiak eraikita bere inguruan. Erraztasuna da norbera norbere biziaz eta lanskariak bakarrik arduratzea; baina laxoki bizitzeak badakar bere arriskua. Eta indar guztiak agintari edo nagusi baten eskutan uztea ere arriskutsua da. Herriarrak zenbat eta kontzienteagoak eta solidarioagoak izan, orduan eta toki gutiago ukanen du faxismoak. Eskertze-koak dira ezker-eskuin herrigintzan ari direnak, herriaren zerbitzari direnak, diruaren edo beraien interes propioen zerbitzari izan beharrean.

Zure etxean egin zen nazioarteko adituen eta ETako militanteen arteko armen entrega.

Gela honetan. Mahai honetan berean.

Zerk eraman zintuen proposamena onartzera?

Nik beti izan ditut harremanak militanteekin, ETako jendeekin baita ere beste aldekoekin. Bitarteko lan anitz egin dut batzuen eta besteen artean. ETakoek proposamena egin zidatenean nik ez nuen dudarik egin beharri buruz. Norbaitek behar zituen arrisku horiek asumitu, zeren 2014a ginen, 2011n Aieteko Ituna izan zen, armak uztearen aldeko urratsa egin zen, baina nehork ez zituen hartu nahi, eta entregatzeko armak biltzen ari zirenak atxilotzen zituzten. Konbentzitutua nintzen ETaren armagabetze hori sinesgarritasun osoz egiten zutela. Izan ziren aurretik bake prozesuak urperatu zirenak, baina oraingo honetan azpitik zetorren indar izugarri handia sendi zen, eta Iparraldeko agintari guziek bat egiten zuten bakebidearekin. Europako Parlamentuan ere egon ginen eta bakebidearen alde bozkatu zuten europarlamentariek. Prefetaren ikustera izan ginen, azaltzeko armagabetze horretan eskua sartu behar zuela, entzun gintuen eta ondotik Frantziako Gobernua ere inplikatu zen. Argi nuen nik, ez nuen dudarik. ETakoek bizpahiru



“ ”

**Anitz jende mugitu
da Iparraldean
Euskal Herriaren alde,
ni katebegi txiki
bat naiz kate
horretan**

egun pasa zituzten etxean, dena gordeka, beldur handia bazuten. Baina aldi berean hor bazen gizarte berri bat sortzeko ilusioa eta nik hori nuen ikusten.

Igande goiza zen, meza nuen 09:00etan, elizara jin ziren nazioarteko bi adituak, ez ziren giristinoak baina ondotik elizatik honera egiteko.

Atxik Berrituz liburuan kontatzen dugu giristino gisa bakegintza horren alde hamalau urte horietan egindakoa. Talde gisa egindakoa interesgarria da, baita pertsonalki bakoitzak egindakoa ere. Nik taldekoei kontatu nien gela honetan egon zirela armak, eta ez nuela sekula

inori kontatua. Bultzatu ninduten leku-kotasuna ematera. Enetako ez da beste munduko engaiamendu bat, zeren anitz jende mugitu da Iparraldean, anitz jende eman du anitz Euskal Herriaren alde, bakearen alde, iheslarien alde, beste gizarte bat sortzearen alde. Ni katebegi txiki bat naiz kate horretan.

Hamar urte pasa dira ordutik. Gatazkaren konponketan eta herri honen aitortzearen bidean zein dira ikusten dituzun trabak eta indarrak?

Betiko indarrak hor ditugu, herrigintzak garrantzia handia du. Kontzientzia hartu behar dugu dugun aberastasun eta aniztasun horretaz. Iparraldean aniztasuna bizi izan dugu betidanik, dena den, azpian

izanik ez genuelako beste biderik; baina bestaldean, bat bestearen kontra aritu dira, dela alderdien artean edo borroka armatua bai ala ez gatazkan. Gizarte berri batean gara eta lehengoko eskemak utzirik, indarrak batu behar ditugu. Horren kultura badugu? Ez dakit, eta hori izan daiteke traba, herri bat ez delako egiten bat bestearen kontra. Elkartu behar gara, lehen arerio izandakoa ezagutu behar dugu, eta horretarako espiritualtasuna beharrezkoa dugu. Lehen erlijioak ekartzen zigun eta orain beste nonbaitetik behar dugu indar hori bildu. Espiritualitatea ez da apez baten esku, jendeak eta herriak du indar hori. Beste traba handia dugu Espainia eta Frantzia beti hor ditugula. Nazioarte mailan ez dut ikusten nola joan gaitezkeen independentziari buruz. Ditugun bideetan behar dugu finkatu gure nortasuna: kulturaren, hizkuntzan, ekonomian, elkarbizitzan. Herri hori eraiki, bide horiek garatu eta nazioarteko harremanak bultzatu behar ditugu.

Eta euskararen bilakeraz zer diozu? Badirudi gure politikariek ez dutela seriozki hartzen gaia.

"Euskadi askatuta" aldarrikatzeak eta euskara bazterrean uzteak ez du balio, euskarak egiten gaituelako euskaldun. Badu 80 urte sortua naizela eta euskarari dagokionez aitzinamendu handiak ikusten ditut. Ikasketak ez ditut euskaraz egin, euskara ez zen sekula-sekula santan erabili behar eskolan. Duela 50 urte, ikastola sortu genuenean Miarriritzen, gizajoak ginen, sos pixka bat ukaiteko manifestazioak egiten genituenak. Peko errekan zen euskara, eta orduz geroztik egin den bidea ikusi behar da. Baina ados naiz zurekin, sobera fite lerratzten gara frantsesera, eta bada anitz egiteko. *Lekitton* liluratua gelditzen naiz itsasbazterrera joaten naizelarik eta denak euskaraz entzutearekin *–lekittarrez* gainera! Nire amari entzuten nion euskara entzuten dut haur txikietan eta horrek betetzen nau-. Nik alde onak ikusten ditut, baina badakit euskara geroz eta gehiago ikasia bada ere, geroz eta guxtiago erabilia dela. Frantzia hizkuntza



Argazkian, Epalza arrantzan ari.

ofiziala frantsesa dela dioen sistema hautsi behar da. Frantziak gerlaren bidez eta frantsesa inposatuz egin du bere herria. Hizkuntza izan da jakobinismoaren instrumentu handi bat eta desarmatu behar dugu lehertzen gaituen bonba hori. Konstituzioko bigarren artikulua aldatu beharra da, euskaraz egin ahal izan dezan nahi duenak, askatasun osoz.

Beste zerbait gehitzeko?

Eskerrak eman Euskaltzaleen Biltzarrari, liburua euskarara itzuli izanaz biziki kontent naizelako. *Pêcheur d'hommes* (Gizonen arrantzalea) deitzen da frantsesez, baina euskaraz *Gizatasun arrantzale*, gizatasuna emazteetan ere badelako eta berdin gizonetan baino gehiago. ●

BABESLEA:

LEZO

EUSKARAGARRI

Lezoko Unibertsitateko Udala



Iritziak

Baliabide publikoen kontrola



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Trumpen muga zergen inguruko neurri ero bezain erratikoek ekarri dute Europako Batasuneko herrialde ugari sektore eta enpresa kaltetuentzat dirulaguntzak bideratzea. Esate baterako, muga zergen gerrak kaltetutako enpresen aldeko 14 mila milioi euroko plana onartu berri du Madrileko gobernu zentralak. Gasteizko gobernuak ere 450 milioi euroko dirulaguntzak jarriko ditu epe laburrean muga zerga berriek kaltetu dituen enpresak babestu eta sustatzeko. Nafarroako Gobernuak ere laguntza gehiago iragarri ditu xede bera gauzatzeko.

Larrialdi egoeran dirulaguntza publikoen erabilera zilegi eta, areago, kome-nigarria ere izan daiteke interes orokorren ikuspegitik. Horrela da, baita ere, etekin pribatua gehitzeko asmoa duen enpresa pribatua denean onuraduna. Ekonomi politika eta, zehazki, industri politika egokiak garatzea ezinezkoa litzateke gastu publikoa tresna gisa erabili gabe.

Nolanahi ere, zalantzakorrak dira gobernuak mugitzen duten baliabide publikoen norakoa eta onura komunera-ko funtzioa. Dirulaguntza publikoak esleitzeko finkatzen diren irizpide eta helburuak funtsezkoak dira gobernantza zuzen eta demokratikoa garatzeko. Bestalde, enpresa onuradunek dirulaguntza publikoak jasotzeagatik nolabait teko betebeharra exijitzea ezinbestekoa da interes orokorraren izenean.

Baliabide publikoak eskuratzeagatik enpresek enplegua mantentzeko konpromisoa hartu beharko lukete. Eta ez edonolako enplegua, baizik eta kalitatezkoa

Enpresek, batik bat enpresa erraldoiek, baliabide publikoak eskuratu ohi dituzte beren onura pribatu soilerako. Europako Berreskuratze Fondoekin (Next Generation EU) gertatutakoak aipamena merezi du. Europako Batzordeak indarrean jarri zuen finantzazio lerro erraldoi hori *kolaborazio publiko/pribatu* deritzon eredupean. Errealitatean bestelako garapena izan du, baliabideak eta arriskuak sektore publikoaren ardura diren arren, fondoek kudeaketa eta jardueren mozkinak enpresa pribatuentzat bideratu dira.

Balantza oker hori saihesteko, ezinbestekoa da diru publikoa eskuratzeko hartzailak trukean baldintza batzuk betetzea. Europako Batasunak baldintzak ezarri ohi ditu estatu partaideen lagun-

tza politikak indarrean jartzeko garaian, Next Generation horren adibide da. Laguntzak jasotzearen truke estatuek inflazio, defizit eta zor publikoaren irizpideak bete behar izan dituzte, alde batetik, eta lan merkatuaren desarautzea eta gastu sozialaren tenkatzea dakartzaten egiturazko erreformak egitera behartuta egon dira. Baldintza horiek onartezinak dira, ondorio sozial zein ekonomiko larriak ekarri dituelako eta Europako proiektuaren joera neoliberal bistaratu duelako.

Horrelako baldintza lerroak alboratu eta bestelako bide batean aurrerapausoak emateko betekizunak justizia sozialean eta interes orokorrean oinarrituta egon beharko lirateke. Esate baterako, baliabide publikoak eskuratzeagatik enpresek enplegua mantentzeko konpromisoa hartu beharko lukete. Eta ez edonolako enplegua, baizik eta kalitatezkoa. Ezin da onartu dirulaguntza publikoak jaso eta gero plantilletan doikuntzat egitea edo lan baldintzetan nariadura gertatzea.

Beste baldintza zuzena litzateke mugatzea enpresa onuradunetako zuzendaritza taldeen edo akziodunen irabaziaz. Halaber, enpresa horiek zerga ekarpen makurrak egiteak edota zerga paradisuetan kokapena izateak marra gorria izan beharko lukete. Eta baldintzatu beharko litzateke enpresen betekizuna energi eta klima trantsiziozko zein genero berdintasun planei dagokienean ere. Baliabide publikoak ez lirateke opari hutsa izan behar, alegia. ●

Liburuak Et'abar



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



MAIDER LETURIAGA

Hazparnen idekiko da –hau publikatzean ez bada jadanik egina– liburu denda berria. *Et'abar* deituko da. Denda tipia izanen da, euskarazko publikazioen eskaintza ukanen duena. Ez da Ipar Euskal Herri barnealdean bakarrik arituko. Hain zuzen ere, azken lau urteetan Ortzaizeko Menta dendak kultur eskaintza hedatzen du bere eskualdean barna.

Luzaz, euskal kultura kontsumitu nahi zuenak Baionara joan behar zuen. Prentsa bulego gutxi batzuen eskaintza tipi eta isolatuaz aparte ez baitzen saltegi bereziturik, edo iraunkorrik, edo molde zabalean horniturik, ez irakurleak aholkatzeko zerbitzurik zuenik, Baionatik harago.

Beraz, denda horien idekitzearen berriak poza eragiten du, agertzen baitu denda-buruen kuraia, baita azken urteetako joera zein den ere, bai publikazioen formatuari doakionez, bai irakurzaletasunari doakionez.

Azken urteetan, liburuak produktu ezin salduzkat eman da, eta maiz aipatu da formatu numerikoak eta liburu digitalak papera akabatuko dutela. Bestalde, azpimarratu ohi da gaurko egunean irakurlerik ez dela, eta horretaz inkestek eta saltegi-takako arduradunek zenbaki larriak aitzinatu izan dituzte.

Alta, Frantziako Estatuko adibidea hartuz, urte hasieran publikatu neurketa baten ondorioek diotenez, liburu digitalak hazten ari dira, baina marjinalak izaten jarraitzen dute, Frantziako argitaletxeen diru-sarreraren %10 baitira. Alderatzeko, Amerikako Estatu Batuetan, merkatuaren %20 ordezkatzeko dute. Zergatik? Frantziar, hasteko, argitaletxeek ez dutelako inoiz norabide digital argia hartu, eta, bestalde, maiz prezio altuak praktikatzen dituztelako. Beraz, trantsizioa ez da pentsatu bezain laster eta molde indartsuan gertatu eta merkatu segurua da, beraz, paperezko liburuena oraindik ere. Gainera, galdekaturik gehienek nahiago dituzte "egiazko" liburuak. Irakurle kopuruen inguruko datuei doakionez, goranzko joera agertzen dute: %86k irakurle gisa azaltzen du bere burua (irakurle handi, ertain nahiz tipi).

Nihaur, duela hamar bat urte, kontentzituratzen liburu bertsio numerikoak sekulako ateak idekiko zizkigula, batetik, sorkuntza eta jakintzaren truke eta zabalpena erraztuko zuelako, eta bestetik, paperaren presentzia murriztuko zuelako. Alta, aitortzen dut, gaur egun, segitzen dudala paperezko euskarriak erosten, agian duela hamar

urte bezainbat. Eta badirudi joera orokorra dela.

Dena den, irakurle edo irakurle potentzial, gogoan izan ezazu arrazoi anitz direla denda berri horietara joateko eta paperezko liburuari atxikiak egoteko. Ez dute batera edo egunera-keta arazorik. Horrez gain, ez da arazorik mugaren alde batean zein bestean eskuratu ahal izateko, ez baita plataforma eta ordainketa mugarik. Elkartrukatzeak erraza da, ez da *Cloud* batean kokaturik egoten. Liburu bat hamargarren solairutik erortzen bada ere, ez da apurtzen: esperientziak frogatu du. Paperezko liburu batek ez du datu pribaturik zelatatuko eta ez deus salaturiko irakurleari buruz. Liburu bakoitzak du bere ukipen sentsazio berezia: bata leunagoa, bestea finagoa, bestea latzagoa. Liburu bakoitzak du bere usaina, tintarena, etxeko apaletakoa, prestatu dizun kidearena. Itzalaldi bat gertatuz gero, liburuak eskura egon daitezke eta itzalguneak iraunen balu, papera balia daiteke berotzeko. Arma inprobisatua bilaka daiteke, adibidez, lapur bat zantzez lokartzeko.

Bide luzea egin beza, beraz, paperezko liburuak, eta beste hainbesteko bide ederra egin bezate liburu dendek. ●

Non molestatuko dut?



**KARMELE GISASOLA
ZENIKAZELAIA**
HERRI KIROLARIA

I majinatu kiroldegiko igerileku bat, sei kortxo ilarekin. Lerro horietako baten aurrean zutunik zaude. Lehenengo kalean adineko bi andre-gizon ikusten dituzu, beraien taularekin astiro-astiro igeri egiten. Bigarren kalean, aldiz, bi neska gazte dabiltza bata bestea baino estilo hobeagoarekin igeri, gelditu gabe. Hirugarren eta laugarren kaleetan, haurdun dauden emakumeen talde txiki bat ikusi duzu. Azkenik, bosgarren eta seigarren kaleetan, kiroldegiko monitorean argibideak jarraitzen dituen jubilatuen kuadrilla duzu.

Kale horietako batera sartu orduko, zeure buruari bi galdera hauetako zein egingo zeniokeela uste duzu? *Non molestatuko dut gutxiago?* Edo, *non molestatuko naute gutxiago?*

Sare sozialetan denbora pasa nenbilela, arestian aipatutako irudi hori islatzen duen ilustrazioa ikusi nuen eta begira gelditu nintzaion. Egoera horren aurrean, uste dut pentsatuko nukeela *non molestatu nezakeen gutxiago*. Baina askotan esaten den bezala, situazioa heldu arte, inork ez daki.

Aurtengo Euskaraldian, ez dut zalantzarik izan beste urte batez *ahobizi* rola hartzeko. Baina aurten berrikuntza batekin: “H” daraman txapa eramatea hautatu dut. Nahiz eta nik hitanoa ez erabili, betidanik entzun dut familian

eta hurbileko hainbat tokitan, eta gus-tatuko litzaidake etxean zein kalean hitanoz dabiltzanek neurekin ere hitanoz jardutea.

Hitanoak baditu bere ezaugarriak; gure etxean, aitzak ezin zion aitonari hikaz hitz egin, bestela aitona bere onetik aterako zelako. Baina ezagutzen ditut beste familia batzuk, non semeak aitari hikaz egiten dion eta aitari ez dion molestetzen.

Kuadrillan hitanoak hausnarketarako eman digu, eta nahiz eta oso abilak ez izan horretan, WhatsAppeko konbertsazioak hitanoz idazteari ekin diogu. Izan ere, herriko beste neska kuadrilla batzuetako kideek aitortu digute beraien ere hasieran broman hasi zirela, ideia gutxirekin, baina urteak pasa ahal, erabiliz mantendu dutela. Gaur da eguna kuadrilla horrek hitanoa erabiltzen duena.

Pertsona batzuk Euskaraldia heltzeko gogoz egongo ziren, txapa jantzi eta ariketa sozial honi ekiteko, jendearen pentsamoldea aldatzeko asmoz. Beste batzuk, ordea, izena eman, txapa galdu eta lehenagoko ohiturak berdin jarraitzeari ekingo zioten. Badira beste batzuk, txapa ikusi orduko molestetzen gabiltzala pentsatzen dutenak. Kasu honetan, argi dut ez didala inporta zein eta zenbat molestatuko dudan. ●

Etxea



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Etxea euskal ohitura zaharretan hildakoen eta bizirik zeudenen espazioa zen. Hilda jaiotzen ziren umeak edo bataiatu aurretik hildakoak kanpoko horma baten ondoan lurperatzen ziren, teilatuaren babesean. Abizenak ere etxe bati lotuta zeuden, etxeak ematen zion izena bertan bizi zenari. Etxe horrek berorrek espazioa ere bazuen elizan, eta antzina leku horretan hilobiratzen ziren etxe defuntuak. Ez zen “nire” etxea, gurea baino.

Aspaldiko kontuak dira horiek. Orain “nire” da adjektibo posesiboa. “Gure” gutxiago. Dena den, kasu askotan posesio gutxi, eta bizitzeko lekurik ez.

Etxebizitza duin eta egokiaz disfrutatzeko eskubidea aitortzen du espainiar konstituzioak, eta Frantziako Estatuan oinarritzko eskubidea da. Paperezko eskubideak, askotan. Gero eta pertsona gehiagok kalea dutelako bizileku, eta beste askok duintasun eta egokitasun gabeko bizitokian biziraute dutelako.

Ez da inoiz erraza izan, antzina ere erreteroeak gorriak ikusten zituzten alokairua ordaintzeko santomasen bueltan (pagatze egunean). Orain ere makina bat ezinean dabiltza, abusuzko alokairuak direla eta.

Etxea lehentasuna, noizko? ●

Mercadona konspirazioa



**BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA**
IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Ez naiz oso konspirazio zalea. Eta are gutxiago naiz konspirazio zaleen zalea. Baina badago bat, hasieran sinesgogor harrapatu baninduen ere, luze gabe konbentzitu egingo nauena azkenean. Ikusiko zenuen zuen sare sozial gogokoenean bueltaka: Mercadona konspirazioa.

Konspirazioaren teoria horren arabera, aspalditik ohiko erosleak diren zenbait lagun errekrutatzen ari da enpresa valentziarra, eta proposamena onartzen duten kontsumitzaileek kontratu bat sinatu behar dute, isilpeko klausula eta guzti; hau da, inork ezin du jakin kontratatuta daudela. Haien funtzioa oso sinplea da: Mercadonako produktuak promozionatu behar dituzte jendartean, ahalik eta modurik sotilenean –ez dute beti asmatzen, dena esan behar bada–, eta inguruko kontsumo-ohituretan eragiten ahalegindu behar dute nola edo hala.

Kosmetikoekin duela hogeit bat urte hasi omen zuten proba pilotua dozenaka lagun ezkuturekin –zuzendaritzataldeko kideen inguruko jendea aritu

Mercadonako produktuak promozionatu behar dituzte, ahalik eta modurik sotilenean, eta inguruko kontsumo-ohituretan eragiten ahalegindu behar dute

zen lantegi horretan, batez ere–, Roig jaunaren supermerkatuek Hego Euskal Herrian lur hartu baino lehenago. Ondoren etorri ziren paellak, patata-tortillak, hummusak, gyoza eta txokolatzeko mousseak. Azken produktu izarra kefirra da, adi egon inguruko norbaitek gaia erdi disimulan ateratzen badu ere.

Nire sare sozial gogokoenean irakurritako txosten (sic) baten arabera, Mer-

cadonak Espainiako Estatuan 15.000 lagun ezkuturen langa gainditu omen zuen 2024an. Trukean, dirudienez, %40ra bitarteko deskontuak lortzen dituzte zenbait produktutan, eta iraungitzeaz dauden salgaiak doan eramateko aukera ematen diete.

Konspiratzaile batzuk harago joan dira. Gutxi batzuen ustez, Mercadonaren kontrako kanpainak ere Roig jaunak berak sustatu eta diruztatzen ditu, horien ondoren beti hain ondo funtzionatzen duen jarrera biktimista elikatzeko asmoz. *Salvados* saioak 2017 urrun hartan eskainitako erreportaje kritikoa marko horretan kokatuko litzateke, besteak beste. Baina, esan bezala, erradikaleen usteak dira horiek. Tira, sinesberenenak. Dena sinetsi ez baina edozer sinesten dutenen kategoria da hori, beste hark esan zuen bezala.

Konspirazioaren teorian baina, konspirazioaren hipotesizat joko dut oraingoz, baina gero eta indar handiagoa hartzen ari den hipotesia, inondik ere, ingurura begiratuta gero eta susmagarri gehiago ditut eta. ●



HAMAIKANPER HASTEAR DA!
MAIATZAREN 27AN, 22:00 ETAN HAMAICA TELEBISTAN
EZ GALDU LEHEN ATALA ETA EZAGUTU LEHEN LEHIAKIDEAK!

HAMAIKANPER
LEHIAKETA

Eta zuk zurea erakutsi nahi?
Eskaneatu QRa eta parte hartu!
www.hamaika.eus/saioak/hamaikanper



hamaika

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa

Desazkunde turistikorantz, turismoaren oinarri kapitalistak kolokan jartzeko

Europa hegoaldean turistifikazioaren aurrean dauden hirien SET sareak topaketa egin du Bartzelonan, apirilaren 25etik 27ra. Turistifikazioak lurralde eta bizitzetan duen eraginaren tamainaz ohartarazi dute: “Ez da turismo handia jasotzen duten guneen arazoa soilik;

sistema ekonomiko baten agerpen bortitza da”. Euskal Herriko hainbat talde eta pertsonak parte hartu dute eta, tartean, Donostiako Bizilagunekin plataformako kideak ere bertan izan gara. Topaketan bizitakoa eta hausnartutakoa jaso dugu lerro hauetan.



ASIER BASURTO ARRUTI



JOAN MATEU PARRA

Apirilaren hondarrean Europa hegoaldeko hamabost hiri eta lurraldetatik heldu ziren Bartzelonara ehun bat lagun, tartean hamabost bat euskaldun. Ez ziren Airbnb-etan ez hoteletan geratu; lagunen, ezagunen eta lagun ezezagunen etxeetan baizik. Ez ziren jaialdi baterako, ezkongai baten despedidarako edo norberaren mapamundian ixa bat marrazteko joan. Hartzera eta ematera joan ziren, euren sorlekuetan pairatzen dituzten egoerak hobetzeko ideiak, ezagutzak eta indarrak elkartrukatzera. Europa hegoaldean turistifikazioaren aurrean dauden lurraldeen topaketan parte hartzera joan ziren.

Jardunaldia hasi aurreko goizean, SET sareko kideek prentsaurrekoa eskaini zuten Sants auzoko La Comunal espazioan, topaketaren zergatiak eta parte hartzaileen aldarrikapen komunak jendaurrean helarazteko; manifestu bate-

ratua irakurri zuten katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez. SETeko kideek salatu zuten turismoaren hazkunde mugagabeak eguneroko bizitzan ondorio larriak dituela, eta “jendea pobretzen duen erauzketa-industria” dela. Ohartarazi zuten hirien turistifikazioaren ondorioz auzo askotan etxebizitzak, eta bereziki alokairuak, garestitu direla eta bizilagunak kanporatzen ari direla. Turismoa ingurumenarentzat ere kaltegarri dela azaldu zuten: “Planetaren berotzearen erantzule diren isurketen %9 eragiten ditu, eta energia eta baliabide naturalei dagokienez, lurraldearen gaitasun biofisikoa agortzen du”. Egoera horrek desberdintasun sozialak areagotzen dituela nabarmendu zuten: “Turistifikazioaren esplotazioa nabarmenagoa da arrazakeriaren, generoaren, sexu-orientazioaren edo kapazismoaren ondoriozko diskriminazioak jasaten dituztenengan”.

Amaitzeko, ekainaren 15ean mobi-

lizazio koordinaturako deia egin zuen SETek. “Europa hegoaldeko turistifikazioaren aurka duen ahotsa kontinente osoan eta haratago entzungo da, planeta suntsitzen duen su turistikoa desagererrarazteko, eta ustiatzen dituen lurraldeen ezinbesteko eraldaketa sozioekonomikoa behingoz hasteko”. Lurralde turistifikatuetaiko komunitateek beren eskubideak aldarrikatzeko eta bizitzaren pribatizazioari aurre egiteko manifestazioak eta protesta ekintzak egingo dituztela iragarri zuen sareak.

Harrera mediatikoa ez zen makala izan. Prentsako langile ugari jarraitu zuten zuzenean agerraldia. Deigarriena, agian, Erresuma Batuko prentsa sentsazionalistaren presentzia izan zen. Hain zuzen, azken hilabeteetan Espainiako Estatuko turistifikazioaren aurkako mugimenduen kriminalizazioa lantzen aritu dira, eta Bartzelonako topaketa baliatu zuten hori elikatzeke.





SET sarea

Turistifikazioari aurre egiteko sortu zen SET sarea –Sud d'Europa contra la Turistificació– 2018ko apirilean. 2017an Europa osoan turismoaren eragin negatiboengatik protestak eta aldarrikapenak areagotu ziren, eta turismoak dakarren guztia ona denaren dogma pitzatu egin zen. Donostian, besteak beste, garai hartan piztu zen egun zabalik dirauen eztabaida; eta orduan sortu zen Bizilagune-kin plataforma, hasieratik SET sarearen parte aktibo izan dena.

SET sare ireki eta transnazio-nala da. Sarearen filosofia ez da zentralizazioaren aldekoa, baina bai elkarrekintzarena: hiri bakoitzak bere bidea du, baina guztiak ari dira arazo berari bueltaka; bizilekuak suntsitzen dituen eredu turistikoari eta, are garrantzitsua-goa, konponbideen sorkuntzari. Sorreratik hona hiru edo lau topaketa presentzial antolatu dira, eta hamaika ekintza, komunikatu eta aldarrikapen sustatu.

Bereziki aktibo agertu zen COVID-19aren pandemian, mundu mailako geldialdia turismo eredu birpentsatzeko aukeratzat aldarrikatu baitzuen. Pandemiaren osteko errebote turistikoak, ordea, agerian utzi zuen aldaketa ez dela berez etorriko, gutxiengo boteretsuaren etekinak hazten jarraitzen duen bitartean. Turistifikazioaren aurkako kexek eta bestelako ereduaren aldarrikapenek pizten eta indartzen jarraitu dute urteotan. Eta 2024an inoiz ez bezalako mobilizazio gaitasuna erakutsi zuten lurralde askotan.

TURISTIFIKAZIOAREN KALTEAK ETA BORROKARAKO ESTRATEGIAK

Topaketa ez zen izan zientzialarien, administratzaileen edo adituen kongresu bat; aktibisten elkartze bat izan zen. Baina, hiru egunetan nabarmen ikusi zen bezala, urtetako borrokan zaildutako ekintzaileek, esperientziaz gain hausnarketa eta ezagutza esanguratsua pila-tu dituzte. Ez zen datuen aurkezpen eta kontraste gune bezala baliatu; eztabaida, hausnarketa eta elkartruke gune bezala baizik. Ez zen turismo jardueraren inguruko azterketa bat izan, turistifikazioaren aurka borrokatzeko eta gizartearen alternatibak sustatzeko bilaketa bat baizik: “Turistifikazioaren aurkako borroka ez da kontraktasunaren adierazpena soilik; bizitza hobearen aldeko apustu aktiboa da”, berretsi zuten hainbat lurraldetatik joandako eragileek.

Ez da masifikazioari lotutako arazoa soilik; turismoak lurralde baten gobernantza, ekonomia, ingurumena, kultura, hizkuntza, hirigintza eta bertako biztanleen bizitza gehiegi baldintzatzeaz ari gara

Topaketetako lehen gogoeta kolektiboa mahai-inguru batean egin zen: turistifikazioaren ondorioak ardatz hartuta, sei lurraldetako aktibistek euren ikuspegia partekatu zuten: Lisboa, Palermo, Euskal Herria, Napoli, Kanariak eta Bartzelona. Askotariko ikuspegi- en esperientzia eta kezkek ehundu zuten elkarriketa. Aztertu zen nola azpiegitura turistikoek –Airbnb eta hotelak, itsas portuak, aireportuak...– herritarren bizimoduan eragin zuzena duten, hirien eta lurraldeen antolamendua baldintzatzen dutelako. Eta biztanleek pairatzen dituzten kalteetan arreta jarri zen: bazterketa ekonomikoa, arrozte kulturala, osasun kalteak, kanporatze espaziala eta gehiago.

Turistifikazioaren ezaugarriak turismo-eredu bakoitzaren arabera desberdinak direla ere ikusi ahal izan zen. Hiriturismoa, uharteetako baldintzapenak,



eguzki eta hondartza ereduak, luxuzkoa, gurutzaontzi bidaiak, gastronomikoa, gau giroari lotutakoa, kirol eta kultur ekitaldien erakarmenaz baliatzen dena... Eta turismoaren sustapenean engaiatutako botere ekonomiko eta politikoei lurraldeak eredu horien arabera antzaldatzen dituztela agerian jarri zen.

Turistifikazioa eta gainturismo egoe-ra (*overtourism*) marko egokian kokatu zituzten: ez da turismo handia jasotzen duten guneetako arazoa soilik; sistema ekonomiko baten agerpen bortitza da, eta horrek logika bera errepikatzen du leku askotan. Ez da masifikazioari edo jende pilaketari lotutako arazoa soilik; turismoari lotutako negozioek lurralde baten gobernantza, ekonomia, ingurumena, kultura, hizkuntza, hirigintza eta bertako biztanleen bizitza gehiegi baldintzatzeaz ari gara. Zentzu horretan, turismoaren inguruko eztabaida eredu ekonomiko eta sozial zabalago baten auzi bihurtu zen.

Hitzaldi eta mahai-inguruez gain, interesgarriak izan ziren tailerrak ere: talde txikiagoetan, gai zehatzen inguruan lan-saio praktikoago eta sortzaileagoak egiteko aukera izan zen. Tailerren azken helburua borroka ildoak proposatzea zen. Besteak beste, desazkunde turistikoaren aldeko mugimenduak baliatu ditzakeen diskurtsoak eta antolatu ditzakeen ekimenak elkarrekin irudikatzen jardun zuten.



Kezka iturri nagusietako bati heldu zitzaion batean: etxebizitzaren auziari. Garraio-ereduari erreparatu zitzaion beste batean, lurreko, aireko eta itsasoko garraio turistikoari, hain zuzen. Klima-larrialdia eta turismoa lotzen zituen tailerrean, bi norabidetan landu zen gaia: turismoak klima larrialdian duen eragina eta berotze globalak turismoaren fluxuetan eta moldeetan duena. Beste tailer batean, espresuki landu zituzten turismo industriak azken urteetan hazten jarraitzeko edo bere jarduera zilegi egiteko baliatzen dituen estrategiak: nomada digitalen promozioa, elitizazioa, turismo jasangarriaren mantra, ekonomia urdina, zilarrezko ekonomia, turismo adimentsua eta abar luzea. Azken tailerra turismo sektorean nagusi den enplegu prekario eta feminizatuaren ingurukoa izan zen; azpimarratu zuten turistifikazioaren aurkako borrokan bizilagunen eta langileen arteko aliantzaren potentziala garatzea ezinbestekoa dela.

DESZAKUNDE TURISTIKOA ETA BESTELAKO BIZIMODUAK

Topaketa osoan, gai zehatzen inguruko eztabaidak hausnarketa orokorragoekin bustita egon ziren. Adibidez, etengabe egin zitzaizkien erreferentziak kapitalismoaren berezko ezaugarriari edo desazkunde turistikorantzko bideari. Baina era horretako ideiak bereziki azken solasaldian trukatu eta aberastu ziren. Puntua

Zer da hazkundera? Zertarako hazi? Nolako harremanak ditugu lanarekin, aisialdiarekin eta kontsumoarekin? Zenbateraino da berezkoa edo eragindakoa bidaiatzeko beharra edo desioa?

jarri zuten Bartzelonako Desazkunde Turistikoaren Aldeko Auzoen Asanbladako kideek eta Balear Uharteetako Unibertsitateko ikerlari Macià Blazquezek eta, hortik aurrera, eztabaida zabala egin zen topaketako jatorri anitzeko kideen artean. Zalantzak eta ideia kontrajarriak egon baziren ere, parte hartzaile guztiak mugimendu bakarreko kide zirela ikus zitekeen, ardatz batzuen inguruko adostasunean.

Besteak beste, argitu zen nolako desazkunde defendatzen duten: "Desazkunde turistikoa ez da turismoaren bolumena murrizteko estrategia bat soilik, baizik eta egungo turismoaren oinarri kapitalistak kolokan jartzen dituen ikuspegia". Hitzaldietan behin eta berriz azpimarratu zen turismoaren hazkunde mugagabeak baliabide komunak pribatizatzen dituela: itsasoa, airea, hiri-espazioa, bizitegi-par-

kea edo kultura, adibidez. Komunaren ustiaketa pribatu horrek lan prekarioa, desplazamendu soziala eta ingurumen kalteak eragiten ditu. Horren aurrean, desazkunde turistikoak proposatzen du bizilagunen oinarritzko beharrak eta bizi-baldintzak erdigunean jartzen dituen aldaketa sakona. Eredu zehatzak aipatu ziren: Amsterdamgo aireportuan hegaldiak %10 murrizteko estrategia judiziala edo Alemanian pertsona bakoitzari hegaldien muga jartzeko proposamena. Horrelako adibideek erakusten dute desazkunde turistikoa ez dela utopia teorikoa, neurri zehatz eta aplikagarrietan gauzatu daitekeen proposamen errealista baizik.

Solasaldian azaleratu ziren turistifikazioari egindako kritikak gizarteari planteatzen dizkion galdera sakonetako batzuk: zer da hazkundera? Norentzat eta zertarako ari gara hazten? Nolako harremanak ditugu lanarekin, aisialdiarekin eta kontsumoarekin? Eta naturarekin? Zenbateraino da berezkoa edo eragindakoa bidaiatzeko beharra edo desioa? Zenbat eta nola egin dezakegu? Noiz izango litzateke bateragarria bidezko bizi- eta gizarte-eredu batekin?

Parte hartzaileek berretsi zuten ez dela nahikoa turismoaren erregulazio partziala; benetako eraldaketa behar da, sistema kapitalistaren oinarriak kolokan jarriko dituen. Izan ere, justizia sozialaren ikuspegitik, Jason Hickel bezalako autoreen ildotik, desazkunde ez da atzeral-



di ekonomiko bat. Baliabideen erabilera neurtua, kontsumoaren murrizketa eta, horren bitartez, erabaki demokratikoak hartzeko gaitasun handiagoa lortzea da.

Amaia Perez Orozco ekonomialari feministak egiten duen proposamena oinarri hartuta, aipatu zen estrategiak *presazko neurri*, *palanka* eta *itsasargietan* antolatzeko eta sailkatzeko ideia: turistifikazioari muga jartzeko larrialdiko neurriak aldarrikatu; ate berriak zabaltzen lagunduko diguten politikak

sustatu; eta norabidea argituko digun eszenatoki utopiko bat presente izan. Desazkunde turistikoaren aldeko mugimenduak hiru mota horietako elementuz osatutako estrategia partekatu behar duela azpimarratu zuen Mallorcatik heldutako ekintzaile batek.

Argi geratu zen turistifikazioa ez dela jarduera ekonomiko soila, kapitalismoak lurraldeetan eta gorputzetan duen eraginaren adierazle argia baizik. Solasaldiko parte-hartzaileek turistifikazioaren

aurkako borroka ulertzen zuten borroka sozial, ekologista eta feminista gisa; bizitzaren berreskurapenaren aldeko borroka gisa: lan prekarioari aurre egitea, etxebizitza eskuragarria izatea, zaintza kolektiboak lehenestea eta komunitatean ongi bizitzeko baldintzak orokortzea. Mahai gainean jarritako alternatiben artean azpimarratu ziren oinarritzko errenta unibertsala, baliabideen sozializazioa, zaintza kolektiborako egiturak, tokiko ekoizpena eta elikadura burujabetza.

Giro atseginean topatzeko gunea

Topaketa Can Batllóko Bloc4 gunean egin zen, Bartzelonako La Bordeta auzoko espazio komunitario eta autogestionatua. Can Batlló, 2011tik auzotarren ekimenez berreskuratutako antzinako oihergintza lantegia, auzolanaren adibide da, eta gaur egun hainbat proiektu sozial eta kultural eraldatzaile hartzen ditu bere barnean. Bloc4 eraikina elkarlanean kudeatzen dute Bartzelonako Udalak, Kataluniako Generalitateak eta ekonomia sozial eraldatzailearen mugimenduak. 60 proiektu baino gehiago garatzen dira bertan: agroekologia, zaintza, energia berriztagarriak eta kultura arlokoak, besteak beste. Espazioa eroso, argitsua eta koloretsua zen, eta bere egitura malguari esker, jarduera ezberdinetara egokitzeak aukera ematen zuen. Hormetan turistifikazioaren aurkako pankartak ikus zitezkeen, tartean euskarazkoak, baita Palestinako bandera bat ere. Saioen arteko atsedendietan,

kolektiboek beren argitalpen eta materialen osatutako azoka txikian lasai kuxkuxeatzeak aukera zuten parte hartzaileek.

SET sarea osatzen duten lurralde eta eragile asko elkartu ziren bertan: Bilbo (Bilbo Bihotzean eta SOS Alde Zaharra), Kanariak (Asamblea por el Reparto de la Riqueza), Kantabria (Cantabria No Se Vende), Donostia (Bizilagunekin), Eivissa (Canviem el Rumb Eivissa i Formentera), Genova, Iruñea (AZ Sare Komunitarioa), Lisboa (Movimento Referendo pela Habitação), Mallorca (Menys Turisme Més Vida), Marseilla (Stop Croisières Marseille), Napoli (SET Napoli), Palermo (APRO), Venezia (OCIO), Pirinioak (Pirineu viu), Tarragona (Stop Creuers) eta Bartzelona (ABDT), besteak beste.

Hizkuntza aniztasunak kolorea ematen zion giroari. Harreman informalak etengabeko hizkuntza-kudeaketa ariek ziren. Eta ez-hitzezko komunikazioak

denetarikoa formak hartzen zituen. Gune formalei dagokienez, gaztelania eta italiar jakatu zuten *lingua franca* gisa. Antolakuntzak bi hizkuntza horietatik eta horietara aldebereko interpretazioa bermatu zuen.

Giroa topaketaren arrakastaren seinale izan zen hasieratik: elkarrenganako interesa eta topo egiteagatik ilusioa nabarmenak ziren. Batzuk aspaldiko ezagunak ziren, urtetan online harremanetan ibili ostean elkar agurtu zutenak; beste batzuek beren burua eta ingurukoak aurkeztuz hasi zituzten elkarriketak. Talde handiak, txikiak eta diskrezioz eta isilean zebiltzan pertsonak nahasten ziren. Bartzelonako Desazkunde Turistikoaren Aldeko Auzoen Asanbladako (ABDT) antolatzaileek arduratzen eta lan-karga handienak hartu zituzten, eta kanpotik joandakoek, ahal zuten heinean lagunduz, babesa eman ez eta parte-hartuz egin zuten ekarpena.



Erronkaren tamainagatik beldurra, nekea eta ezkortasuna ere azaleratu ziren elkarriketaren uneren batean. Baina emozio baikorrak eta motibazioa agertzea eragin zuen horrek. Borrokatzearen poza sentitu eta, horren bidez, gure bizitzari zentzua emateko deia kutsatu eta gailendu zen giroan: “Ez diezaigun utzi etorkizun hobea irudikatzeari, kezkek gainezka eginda”. Horretarako, irudimen kolektiboa eta alternatiba errealak lantzea funtsezko ikusten da.

Desazkunde turistikoaren aldeko mugimendua ez da “turismoaren aurkako mugimendua”, bizi dugun sistema ekonomiko, sozial eta ekologikoaren diagnostiko zorrotza eta alternatiba eraikitzaile baten aldeko apustua baizik. Solasaldian azaldutako ideiek erakusten dute beharrezkoa dela hainbat galdera potolori erantzutea: zer bizitza nahi dugu? Zer ekonomia? Zer hiri? Zer denbora? Azken batean, hau ez da diskurtso teoriko hutsa: norbanakoaren, komunitatearen eta planetaren biziraupenerako funtsezko hautuak dira.

Topaketari amaiera emateko, ekintza deigarria egin zen Bartzelonako *Sagrada Família* katedralaren inguruan, hiriko eremu turistifikatuenetako batean. Ekintza igande eguerdian izan zen, eta helburu zuen ekainaren 15erako Europa Hegoalde osoan deituta dagoen mobilizazio eguna iragartzea. Bi solairuko autobus turistiko bat igarotzen ari zen katedral paretik, eta aktibista talde batek geldiarazi egin zuen: batzuk lurrean eseri ziren, pankarta handi batekin aurrealdea estaliz, eta urrezko pistolekin ibilgailua busti zuten. Ekintza sinbolikoa izan zen: iaz Bartzelonan egindako manifestazio erraldoian pertsona batzuek turista batzuk bustitzea kriminalizatu eta

Turismoaren hazkunde mugagabeak baliabide komunak pribatizatzen ditu, eta horrek lan prekarioa, desplazamendu soziala eta ingurumen kalteak eragiten ditu

irmoki gaitzetsi baitzuen prentsak. Oraingoan, ikurra berreskuratu nahi izan zuten, umorez eta irudimenez, herri mugimenduak bere borroka moldeak eta narritaba definitzeko saiakera gisa.

ALDAKETARAKO BIDEA

Bertan engaiatuta dauden ekintzaileentzat, turistifikazioaren aurkako borroka ez da turismoaren aurkakoa, ez da bisitariak gaitzesteko kanpaina, ezta hirien iraganarekiko nostalgiaren espresioa ere. Beste gizarte eredu eta beste bizimodu baten aldeko lana da: espazio partekatuen aldekoa, bizilagunengan oinarritutako hiri eta lurralde ereduaren aldekoa. Horregatik, ez da leku bakanetan gertatzen, Europa Hegoaldeko lurraldeetan eta munduko beste hamaika gunetan hedatzen ari den mugimendu sarea da, estutzen doana, elkarrengandik ikasten duena, eta aldi berean, nork bere tokian eragiten duena.

Bartzelonako topaketan bildutakoek argi utzi zuten: hiriak ez dira produktuak; ez dira inbertisiogileen jabetzak; ez dira esperientzia turistikoaren atrezzoak. Hiriak eta herriak komunitateek eraikitzen dituz-

te, fisikoki eta sinbolikoki. Komunitateen eskubidea da bizitoki egokia izatea eta horregatik dihardute lurraldeak turistifikazio basatitik defendatzen, eta horri lotuta, inposatzen zaizkien bizi eredu jasangaitzak zalantzan jartzen. Ez da auzi sektoriala. Ez da hirigintza soilik, ez da etxebizitza soilik, ez da ingurumena soilik. Guztiez ari da, eta eredu osoa jartzen du auzitan. Kontsumoaren kultura, kapitalaren metaketa, irabazi pribatuaren logika eta abar dira gure hiri eta bizitzaren desorekaren eragile.

Konbentzimendu orokor bat ere agerikoa zen bildutakoen artean: badaude alternatibak. Ez sinpleak, ez beti argiak, ez beti errazak. Beste turismo eredu batzuk posible diren? Ikusi beharko da, asmatu beharko dira, probak egin beharko dira. Baina beste bizi eredu batzuk posible direla sinesten duten pertsonak, kolektiboak eta mugimenduak badirela ziurra da. Eta horiek dira sare hau osatzen dutenak. Ausardia kolektiboa sumatzen zen topaketako giroan, eta topaketak berretsi zuen oinarri-oinarritzkoa dela elkarrekin aritzea, isolamendua gainditzea.

Ekainaren 15ean, Europa Hegoaldeko hiri eta lurraldeetan mobilizazioak izango dira berriz, baita Euskal Herrian ere. Auzi unibertsal baten tokiko adierazpena izatearen kontzientzia inoiz baino handiagoa izango da, ziurrenik. Deialdi horiek interpelatuta senti gaitetzen, ez da beharrezkoa Airbnb batek etxetik kanporatu izana, girien tabernak lo egiten ez uztea edo zin egitea gure herritik ez garela irtengo. Gure hiriak, gure lurraldea eta gure bizimoduak defendatzeko deialdiak dira, baina baita zintzotasunez eta itxaropenetik bestelako ereduak pentsatzeko gonbidapenak ere. ●

“ ”

Palestinako Estatua fikzioa da, bakea bezalaxe

Mikel Ayestaran

Kazetaria Ekialde Hurbilean

Ekialde Hurbila lehen aldiz zapaldu eta bi hamarkadatarra, Gazaren historia eta bertako istorioak dakartza Mikel Ayestaranek (Beasain, Gipuzkoa, 1975) bere azken liburuan: *Historias de Gaza. La vida entre guerras* (Gazako kontakizunak. Gerra arteko bizitza) (Península, 2025). "Lur zati txiki bat, desertuaren ate eta Mediterraneoaren portu" zena, bonbek mendean hartutako gotorleku bihurtu da. Gaza zenaz, denaz eta izan daitekeenaz mintzatu da Ayestaran, Euskal Herrian egin duen aurkezpen biran.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE  PELLO MAUDO HERRERO / ARGIA CC BY-SA

Liburuaren hiru aurkezpen egin dituzu Euskal Herrian, hirurak jendez gainezka eta kanpoan ilara luzeekin. Zeren seinale da?

Interesa pizten duen seinale, benetan mezua heldu dela ikusten da. Euskal Herrian, egia esan, Palestinako kausak aspalditik du bere tokia, toki kuttuna. Liburu honekin, niri behintzat, argi geratu zait. Jende asko hurbildu da aurkezpenetara, galdera oso interesgarriak egon dira. Hori da garrantzitsuena niretzat: Gazak oraindik interesa pizten duela. Eta horrek itxaropena pizten dit niri.

Liburuari izena jarri diozu *Gazako kontakizunak*, pluralean. Zergatik?

Alde batetik, Gaza toki historikoa delako; eta, beste aldetik, mila kontu daudelako kontatzeko bere inguruan. Normalean beti kontatzen ditugu gerra garaian piztutako kontuak –Hamasek suziriak bota dituela, Israelek bonbardaketak egin dituela...–, baina askoz gauza gehiago daude kontatzeko, eta hori izan da nire helburua. Baina, liburuaren azpititulua ere, *Gerra arteko bizitza*, oso garrantzitsua da.

Hori da bakea Gazan?

Bakea hitza ez nuke erabiliko. *Itxurazko lasaitasuna* edo horrelako formula bat erabiliko nuke. Okupazioa indarrean dagoen artean ez dut uste bakearik ikusiko dugunik, hitz potoloegia iruditzen zait.

Liburu honek, zure besteekin alderatuta, zure alde pertsonalaren zati handi bat dauka, ezta?

Bai, pertsonalki eta profesionalki oso hurbilekoa dut Gaza. Azken hoge urteetan kointzidentzia batzuk daude eta nire buruari esaten diot: "Posible al da?". Alaba jaio su-eten batean, orain 16 urte bete ditu beste su-eten batean; emazteak Mendarotik irten eta Gazako beste ospitale batean bukatu zuen lanean... Harreman estua dugu Gazarekin etxean, eta horregatik sartu dut parte pertsonal hori.

Liburu honek kazetaritza kronika dauka alde batetik, baina dokumentazio esfortzua ere egin dut historia jorratzeko. Etxean nituen zenbait liburutatik ateratako informazioa sartu dut. Eta beste alde batetik, oso garrantzitsua da, baita ere, lehen pertsona, zentzua daukalako: Gazak benetan du pisua gure etxean, ez dut aise esaten.

Liburua urriaren 7an hasten da, baina ez da urriaren 7ari buruzko liburu bat: 3.000 urteko historia kontatzen duzu.

Oso interesgarria da Gazaren historia, zenbat herri pasatu diren bertatik. Orain zen momentua hori kontatzeko, bereziki, pentsatzen nuelako Trumpen plana [Gaza konplexu turistiko erraldoi bat bihurtzearena] aurrera eramango dutela eta beste Gaza bat ezagutuko dugula hemendik aurrera. Hori kontatu egin behar da orain, liburuak hor gelditu behar du, jendeak jakin dezan Gaza zer izan den; ez dakigu zer gertatuko den etorkizunean, baina orain artekoa, behintzat, ezagutu dezatela.

Nolakoa zen lehengo Gaza hori?

Gogoan dut lehen Gazara sartzerakoan nire inpresioa izaten zela bizirik zegoela, jendez gainezka; leku txikian jende asko bizi da, eta, beraz, sekulako jende kontzentrazioa egoten zen kaleetan, parkeetan. Astoak, zaldiak, jendea, merkatua, zarata. Bizirik zegoen. Orain

jada ez da horrela, azken urte eta erdian behintzat ez. Gero, ikusiko dugu. Trump-pek nahi duen plana betetzen bada, eta Israel-ek bete nahi du, noski, ez dugu Gazarik izango. Beste gauza bat izango dugu, ez dakigu zer, baina zoritxarrez erabateko aldaketa ikusiko dugu. Ezintasun handia dago. Pena handia ematen dit, elkarriketa guztiak oso ilunak dira.

Trump eta Netanyahu aipatzen dituzu. Eurek dauden artean, hau ez da aldatuko?

Egoera aldatzeko AEB Amerikako Estatu Batuetan aldaketa bat egon behar da, eta hori ez da gertatuko. Biden zegoen lehen eta orain Trump dago, eta gauzak ez dira aldatzen. Izan ere, AEBentzat Israel barne politika da, ez kanpo politika. Daviden izartxo AEBetako banderako beste izartxo bat da, dirdira handiena duena. Horregatik, Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluan, esaterako, AEBek inoiz ez dute onartuko Israelen aurkako ebazpen bat. Israel babesten dute: alde batetik, laguntza

ekonomikoa eta militarra ematen dizkiote, gerra aurrera eramateko; eta, bestetik, laguntza diplomatikoa.

Nartzisisten aro berrian gaude, eta liga horretako lehen mailan dago Netanyahu, eta berarekin daude Putin, Orban, Trump... Netanyahu-aren ametsa zen Israelgo agintean urte gehien eman dituen lehen ministroa izatea, eta bada. Baina orain arazo bat dauka: historia-ra pasatuko da urriaren 7ko erasoak gertatu zirenean lehen ministro zelako. Eta hori ezin du jasan. Horregatik, gerra behar du bai ala bai, eta ez da geldituko Gaza guztiz ezabatu arte. Baina, batez ere, ez da geldituko ikerketa sakon bat ez duelako nahi, ikerketa hori gauzatzeko den momentuan bera delako arduradun nagusia. Horregatik pentsatzen dut Netanyahu dagoen bitartean hau ez dela geldituko. Oso gogorra da, zigor kolektiboa da era masiboan. Egongo dira su-etenak, baina beti mantenduko du hor fokua, eta momentu batetik bestera piztuko da berriro, orain gertatu den bezala.





Liburuan Margaliten kasua aipatzen duzu. Argentinarra, Israelgo armadan sartu zen, Gazan kokalekuak ezarri zituen eta gerora damutu eta aktibismoan dabil. Bere moduko asko daude?

Margaliten kasua gutxiengoa da, mirari bat. Israel barruan horrelako iritzi bat defendatzeko ausardia handia behar da. Izan ere, Israelen mobilizazioak izan dira, baina bahituak askatzeko: hori lortu eta gero, egin dezatela nahi dutena Gazarekin. Baina hori horrela izan da azken 30 urteetan, ez orain bakarrik. Israelgo gizarteari ez zaio axola Gazan pasatzen dena, ez dute ikusten harresitik bestaldean gertatzen dena; eta gauza bera gertatzen da Zisjordaniarekin ere.

Zoritzarrez, buruan dugun Israelgo mugimendu ezkertiarak, garai batekoak, gaur egun gutxiengoa osatzen du. Gizarte zibilak, orokorrean, azken hauteskundeen emaitzei erreparatzen badiogu, eskuinerako joera hartu du, Espainiako Estatuan moduan. Baina gertatzen dena da Israelgo eskuina beste edozein herrialdetako eskuin

“ ”

Israelen mobilizazioak izan dira, baina bahituak askatzeko: gero, egin dezatela nahi dutena Gazarekin

muturra bestekoa dela. Hori horrela, orain kolonoek armada kontrolatzen dute eta gobernuan daude: Ekonomia Ministerioa dute, Barne Segurtasun Ministerioa ere kolonoen eskuetan dago. Beraz, egoera desberdina da orain.

Liburuan diozu: "Gazak orro egiten duenean, gainontzekoak isildu egiten dira". Nazioarteko prentsan ezinbesteko gai bihurtu da?

Gerra baldin badago bai. "Gerra artean" ez da existitzen. Horregatik

behar genuen liburu hau. Armak daudenean gogoratzen gara Gazaz, baina gero isiltzen da eta ahazten zaigu. Hemerrotekara joanez gero, oso argi ikusten da: su-etena indarrean sartzen den momentutik desagertu egiten da. Baina, albisteetan agertzeko arrazoiak dituenen, esango nuke, Jerusalemek baino pisu handiagoa lortu duela azken hamarkadan.

2016an ARGIA n egindako elkarrizketan azaltzen zenuen Ekialde Hurbilean izugarri zaila dela informazio purua lortzea, propaganda dela nagusi. Liburu honetan ere aipatzen duzu "Israelen desinformazio eta propaganda makinaria". Horrela, zelan informatu?

Beno, propaganda alde bietakoa da: Israelena, bai, baina baita Hamasena ere, noski. Gainera, oraingo gatazkan nazioarteko kazetariok ezin dugu Gazara sartu, eta, beraz, kanpoan egonda, are zailago dago benetako informazioa jasotzea. Nik armadak ematen digun informazioa ez dut sinesten: ospitale

bat eraso eta handik bi segundora ateratzen dute komunikatua esaten Hamasen kokaleku bat zela. Lehenengo asteetan bazegoen kezka, agian egia izan zitekeen armadak esaten zuena. Baina urte eta erdi pasatuta, argi dago ezetz, hau mendekua dela. Kantitatea nahi dute, odola. Horregatik, niretzat interesgarriena izaten da jendearen testigantzak jasotzea.

Kayed, zure fixerra [nazioarteko kazetarien tokian tokiko itzultzaile, laguntzaile eta gidari papera egiten duen pertsona], agertzen da liburuan.

Bai, eta Kayed bezala beste gazatar batzuk ere ezagutzen ditut. Eskerrak sare bat daukadan, azken hogeitaz landutakoa, eta horri esker bada- kit Gaza barruan zer ari den gertatzen eta ondo daudela.

Menú de Gaza (Gazako menua) seriea argitaratzen zabilta Instagramen, hain zuzen ere, Kayed eta bere emazte Amalek Gazan zer jaten duten erakusteko. Horrekin salatu duzu gosea gerra arma gisa erabiltzen ari direla.

Zenbakiak entzuten ditugu hedabideetan, baina proiektu hau errealtateratzen, intimitateratzen doa. Gazari edo horrelako gatazka bati buruz idazteko jendearengana heldu behar duzu. Jendea heldu behar du. Eta zubi zuzena da pertsonak ikustea. Kayeden familiak, gureak bezala, egunero jan behar du. 300 argazkira heldu direnean ikusten duzu urte eta erdi egon direla haragi freskorik jan gabe, fruta probatu gabe, arrainik gabe.

Proiektua pisua hartzen joan da pixkanaka-pixkanaka, eta lortu du irudikatzea gosea gerra arma dela. Hori da, niretzat, proiektuaren arrakasta: gosea salatzeke proiektua izan dela, eta mezua jendea heldu zaiola.

Eta nonbait lortu du arrakasta. Ortega y Gasset saria eman dizute, sortzaile zaren 5W aldizkariko aurtengo zenbakiko gaia eta azala izan da...

Bai, oso pozik nago. Proiektuak oihartzun handia izan du eta orain liburua- rekin ari gara. Uste dut oso proiektu indartsua dela, eta, gainera, beste edozein gatazkatarazabaltzeko aukera duela iruditzen zait. Kayed eta

“ ”

Ez Mendebaldetik, ez bereziki arabiar mundutik, ez dago borondate politikorik Palestinako Estatua sortzeko

“ ”

Argi dago hau mendekua dela. Kantitatea nahi dute, odola

“ ”

Okupazioa indarrean dagoen artean ez dut uste bakarrik ikusiko dugunik



bion artean piztu zen, mezu bidez, eta denborarekin dimentsio hau hartu du. Askotan miraria zen, platerean zerbait aurkitzeko zailtasunak izan dituztelako, Interneteko arazoak zituztelako... Espero dut azkar amaitzea, betiko. Eten egin genuen urtarrean, baina berriro bueltatu gara, armak mintzo dira eta.

Lehen esan duzu nazioarteko politika aldatu behar dela gatazka amaitzeko. Baina, nazioartean jasotako elkartasunak ez du egingo presiorik?

Nazioarteko presiorik gabe ez da aldatuko ezer, ez. Jendearen babesa handia da, bai, batez ere Euskal Herrian. Baina kontua da ez dagoela borondate politikorik aldaketa praktikoa sartzeko. Jendeak esaten dit Espainiako Gobernuak Palestinako Estatua aitortu duela. Eta nik diot: "Baina non? Marten, Jupiterren?". Ez dago tokirik, estatu bakarrarentzat dago bakarrik.

Gaza jada ia ez da existitzen, Zisjordanian goitik behera okupatuta dago eta ez dute atzera egingo. Non sortuko da Palestinako Estatua? Kontua ez da esatea estatua onartzen duela; neurri praktikoa eta politikoak hartu behar dira hori gauzatzeko. Esan bai, baina nik ekintzak ez ditut inon ikusten, eta borondate politikorik gabe ezin da ezer egin. Horretarako, nazioarteko presioa ezinbestekoa da. Ez Mendebaldetik, ez bereziki arabiar mundutik, ez dago borondate politikorik Palestinako Estatua sortzeko.

Zuk bakarrik ez, elkarrizketatu dituzun palestinarrak ere ez dute uste bi estatuen irtenbidea egin daitekeenik.

Berriz diot: non, ba? Nik zortzi urte eman ditut han Palestinako Estatua- ren bila eta ez dut aurkitu, ez dago tokirik, dena okupatuta dago. Palestinarrak mirari baten zain daude, baina mirari hori bizirik irauteko da, ez estatu bat sortzeko. Palestinako Estatua fikzioa da, bakea bezalaxe. Estatu bakarra dago, Israel, eta errealtate bakarra, gerra; ez dago besterik.

Baina horren beste aldea da Gaza ez dela errenditzen, han gertatzen ari dena palestinarrak bakarrik aguantatu dezakete. Argi bakarra palestinarrek duten erresistentzia da; ez orain, orain dela 3.000 urtetik. ●

A black and white portrait of Shrabani Aranzabe-Pita, a woman with long, dark, wavy hair, smiling and wearing a dark jacket. The background is blurred foliage.

Shrabani Aranzabe-Pita

“Musika mina kudeatzeko eta kanalizatzeko modu bat da”

Ilusioz mintzo da Shrabani Aranzabe-Pita (Orissa, India, 1999) musikari, ikerlari eta pedagogoa. Alkizan (Gipuzkoa) hazi eta hezi da. Pandemian minbizia izan zuen, eta prozesu onkologiko horretatik *Naturaren Doinuak* jaialdia eta proiektua sortu du. Aurtengo jaialdia ekainaren 6tik 8ra izanen da, Alkizan: “Hasieran ni lagundu ninduen proiektuak, baina ni bezala beste mila daude”.

 **OLAIA L. GARAIALDE**  **HIBAI AGORRIA**

Betidanik egon da musika Shrabani Aranzabe-Pitaren bizitzan. Txikitatik pasioa den horren bueltan eraiki du bere bizitza. “Gurasoek pentsatu zuten nonbaitera eraman behar nindutela 4 urte nituenean, zeren etxean kantatzen nuen eta ez ninduten jasaten, kar-kar-kar. Koru batera joan, eta esan nien koru zuzendaria izango nintzela”, kontatu du. Egun, besteak beste, Tolosako Abesbatza Gaztearen zuzendaria da, neurozientzia, musika eta hezkuntza uztartzen dituen doktoretza egiten ari da eta *Naturaren Doinuak* proiektua sortu du. Ekainaren 6tik 8ra izanen da jaialdia: “Musika nire bizitzaren filosofia edo ardatz bihurtu da”.

Pandemia bete-betean loratu zen *Naturaren Doinuak*. Prozesu onkologiko batek piztu zion proiektua sortzeko grina: “Alkizako leihotik begiratzen duzunean batez ere natura ikusten da”. Hilabeteak medikuz mediku ibili os-

“Ez genuen edozein eskolara joan nahi, haur autistak dauden testuinguruetan eragin nahi genuen”

tean, itxialdia baino egun bat lehenago medikuaren dei bat jaso zuen: “Esan zidan ez zekitela zer nuen, ziurrenik minbizia izanen nuela, baina ezin zidatela probarik egin itxialdiagatik”. Nire osasunak okerrera egin zuen: “Zulorantz nindoan, eta Osakidetza ezin gintuen artatu. Zorionez, pribatura joateko pribilegioa izan genuen”. Osasun zerbitzu pribatuan diagnostikoa jaso eta kimioterapia hartzen hasi zen. Ordutik, “poliki-poliki” hobera egin zuen, eta egun, ez du minbizirik.

Prozesu horretan guztian, naturaz gain, musika ere bidelagun izan du. Asko lagundu dio mina eta beldurrak arintzen. Pandemian gurasoekin zegoen, eta edozein momentu edo aitzakia bilatzen zuten musika jo eta kantuan hasteko: “Mina daukazunean hori saihesteko bideak bilatzen dituzu, eta musika mina kudeatzeko eta kanalizatzeko modu bat da”. Min fisikoak baino, psikologikoak eragiten zion gehien: “Sentitzen nuen hil egingo nintzela eta inork ez gintuela laguntzen”.

Orduan otu zitzaion jaialdia egitea eta gurasoen laguntzaz forma ematen hasi zen: “Oso eskertuta nago, batez ere, gurasoei. Nik indarririk ez nuenean, beraiek aurrera atera dute proiektua”. Hasiera, egun bakarreko kontu “txiki” bat izan zen, pandemia zelako. Gainera, baliabide gutxirekin abiatu ziren: “Jende pila bat dago proiektu honen atzean, horiek guztiak gabe ezingo genuke egin. Jendea beti egon da prest la-



guntzeko". Urteak aurrera joan ahala, geroz eta baliabide gehiago dituzte, eta proiektua handitzen ari da. Iaztik hiru eguneko jaialdi bihurtu da: "Nik banekien zer nahi nuen, baina ez nuen espero horrela handitzea".


GIZARTEAN ERAGITEKO TRESNA

Naturaren Doinuak ez da soilik jaialdi bat, urte osoan bizirik dagoen gizarte proiektu bat da. Azken hiru urteetan, kolektibo bat aukeratu eta horiekin elkarlanean aritzen dira. Lehenengo urteetan minbiziari lotutako kolektiboekin egin dute lan. Aurtan, Gautena elkartarekin aritu dira lanean. Autistak diren pertsonen senideen Gipuzkoako elkarte bat da. "Hasieran ni lagundu ninduen proiektuak, baina ni bezala beste mila daude", nabarmendu du.

Gautena elkartean dauden haur eta gazteen eskoletan aritu dira inklusioa, normalizazioa eta sentsibilizazioa lantzen: "Ez genuen edozein eskolara joan nahi, haur autistak dauden testuinguruetan eragin nahi genuen". Horretarako Tolosako Herri-

kide Ikastetxearekin harremanetan jarri ziren: "Oso lanketa polita egiten dute autismoaren inguruan". Arteaz baliatu dira, hala nola marrazketaz eta dantzaz, eta sentsibilizatzeko tailerrak eman dituzte eskolan zein eskolatik kanpo: "Asmoa normalizatzeta da. Nik azal kolore hau daukat, eta beste batek beste ezaugarri bat izango du. Hori ez dadila izan norbait baztertzeko bidea".

Tailerretan landutakoaren era-kustaldi bat egingen dute jaialdian, ekainaren 6tik 8ra. Horrez gain, artisau eta nekazari azokak, kontzertuak eta beste egonen dira. Lehenengo egunean desioetan jarriko dute arreta, eta zuhaitz bat landutako dute autismoari lotutako desioekin. Bigarren egunak belaunaldien arteko harremanak indartzea du helburu. Horretarako bazkalosteko kantu proiektua sortu dute, zeinetan gazte eta zahar elkartuko diren kantuan aritzeko: "65 urtetik gorakoak dira kantu tradizionalak ezagutzen dituztenak. Transmisiorik ez badago galdu egingo dira". ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

Bihotza. Azkenean bihotz-bihotzetik egiten dituzun gauzak ateratzen dira aurrera. Nik uste dut gaur egun hemen bagaude dela benetan bihotz bihotzez sentitu ditugun gauzengatik, eta denon bihotzak konektatu direlako.

SENDABELARRAK



AGARA AGIRRE

Hogei bat espezie ezagutzeko aukera izan dute hiru bat orduko ibilaldian Garbiñe Larrearen eskutik.

Oztibarren ere bada sendabelarrik eta ez gutxi

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Larزابaleko (Oztibarre, Nafarroa Beherea) basoan murgildu da Garbiñe Larrea ibilaldi botanikoa eginez inguruko landareak ezagutzeko asmotan. Ostatu bat baino gehiago den Espelleteniak antolatutako Belagile zikloaren baitan izan da, bigarren urtez Larrea, eta han ikusi/bizitakoak kontatu dizkigu, komunitatearentzat. Oztibarren ere bai baita komunitatea, eta ez nolanahikoa.

Herritik bertatik abiatu da larunbat goizez taldetxoa, bertan duten basoan murgildu eta landareak ezagutzeko. Larreak berak aurretik antolatzaileekin batera zerrendatu ditu zenbait landare, landuta eramateko, baina horiez guztiez gain, gehiago ere topatu dituzte, hogei espezie inguru denera, urrutira joan gabe. “Ez dago, jende batek hala sinetsita badu ere, mendian gora igo beharrik sendabelarrak aurkitzeko”, azaldu digu “pentsa, hiru orduko ibilaldia izan da eta ez genuen kilometro bat baino askoz gehiago egingo!”. Erabileraz mintzatu

dira asko, beti fokua jarrita identifikazioan: “Mugikorretako aplikazioak itzali eta gure gaitasunak garatu behar ditugu, garrantzitsua da espezieak ondo identifikatzea, gure segurtasuna baitago jokoan”, azaldu du Larreak.

“Oso ibilaldi parte-hartzailea izan da eta Hegoaldean ez bezala, Iparraldean askoz presenteago dago lehen sektorea eta galderak ere desberdinak izan dira; animalien kasurako erabilere aritu baikara, esaterako”. Larrearen saioetan landareak dira beti protagonista eta ingurua “zaindua” ikusi du: “Orokorrean ez dago naturarekiko politika erasokor bat, orokorrean diot, justu atzo izan baitzen hemen protesta bat Carrefour berri bat eraikitze asmotan direlako, baina ibili garen inguru honetan biodibertsitate handia dago eta hori aberatsa da oso”.

EUSKARALDIAREN BAITAKO ZIKLOA

Belagile zikloa Euskaraldiaren baitan antolatua izan da eta ibilaldi honek lu-

rraren eta hizkuntzaren arteko lotura es-tuan ere laguntzen du. Euskaraz ikasten ari direnak edo euskara maila apalagoa dutenak ere izan dira ibilaldian eta “oso ondo moldatu gara euskaraz, denok eroso egon garela uste dut eta aberasgarria da beti sendabelar baten izen berriak ezagutzea”, esan du Larreak.

Ez da ikastaro solte bat izan, ondoren bazkariarekin jarraitu dute, arratsaldean Elorri Iguinizen *Sendabelarretik ukendura* atelierrarekin amaitzeko. Beraz, gaiaz hizketan jarraitzeko tarte hartu dute bazkalordu eta ostean ere. Ez hori bakarrik, aurreko egunetik, ostiraletik, hasi baita zikloa Larrearen hitzaldiarekin.

2022az geroztik dago martxan Espelletenia eta ibarrari bizia emateko asmoz sortutako proiektua ari da fruituak ematen. ARGIAren komunitateko parte da eta Maialen eta Jeremiren (proiektuaren nagusiak) hastapenetan eman genuen honen berri (<https://blogak.argia.eus/argia/2022/03/03/ostatu-batek-eskaini-ditzake-aukera-anitz/>). ●

Erregeen sukaldaria eta sukaldarien erregea



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Saint-Cloud (Frantzia), 1810eko apirilaren 1a. Napoleon enperadorea Maria Luisa Austriakoarekin ezkondu zen, eta eztei-tarta ikusgarria Marie-Antoine Carême (1784-1833) sukaldari ospetsuak egin zuen.

Baina Carême gorteko luxuetatik urrun jaio zen, Pariseko auzune txiro batean eta txabola xume bat partekatu behar zuen gurasoekin eta hamalau anai-arrebekin. 1792an, zortzi urte zituela, Frantziako Iraultzaren Izualdiarekin batera hasi zen mutikoaren izualdia; gurasoek, familia mantendu ezinik, Antonin –hala esaten zioten– Parisko atari batean abandonatu zuten zaku bat eta txanpon gutxi batzuekin. Hainbat egunez errai ibili ondoren, jatetxe merke batean hartu omen zuten eta han hasi zen lanean aterpe eta janariaren truke. Biografia berriek mitoa elikatzeke kontakizun puztua dela diote, eta, ziurrenik, gurasoek zuzenean negoziatu zutela mutikoaren “kontratazioa”. Baina kontua da, bere dohainak medio, urte gutxitan gora egin zuela sukaldaritzan. Askok historiako lehen chef ospetsutzat daukate, egungo sukaldari famatu eta mediatikoen aitzindaritzat.

Bera baino askoz lehenago bazeuden sukaldari nabarmenak, Guillaume Tirel, esaterako. XIV. mendean Frantziako errege-erreginentzat aritu zen eta sukaldaritzaz liburu bat ere idatzi zuen. Sukaldari ezagun eta bikaina zen, baina ez zuen Carêmeren eraginik izan.

Paul Freedman historialariaren hi-



Marie-Antoine Carême sukaldari ezaguna du protagonista izen bereko telesail berriak.

tzetan, “egun oraindik indarrean dagoen sukaldeko funtzionamendua ezarri zuen”. Horrez gain, plateren, saltsen eta hornigaien konbinazio egokienak definitu zituen. Eta jakinduria hori guztia hainbat liburuan jaso zuen. Fremanek dioenez, “ez zeukan jatetxerik eta ez zuen herritarrekin harreman zuzenik; bere sukaldaritzaz liburu ugariak ere ez zeuden zaleei zuzenduta, beste chef batzuei baizik”. Eta horri esker, Nathalie Cooke historialariaren ustez “chef belaunaldi berriak trebatzen ari zen, publiko zabalagoarentzat lan egingo zuten sukaldariak”.


Baina Carême berak soilik gorteetan egin zuen lan. Napoleonez gain, Alexandro I.a tsarra, Charles Tayllerand, Jurgi IV.a Ingalaterrakoa edo Rothschild ba-

roia izan zituen bezero. Eta, zenbaiten ustez, harreman horiek sukaldaritzatik kanpo ere eragiteko erabili omen zituen. Esaterako, estreinatu berri den *Carême* telesailan sukaldaria espioitzan aritu zela kontatzen da. Baina historialari gehienek telesailaren argumentua korapilatzeke baliabide hutsa dela uste dute, eta Martin Bourboulon telesailaren zuzendariak ere lizentzia hori hartu izana aitortzen du. Bere ustez Carême ez zeukan espioitzaren beharrik eragina izateko, “bere sukaldeko jarduna nahikoa baitzen botere erakustaldia egiteko”. Telesailan Carêmeren rola jokatu duen Benjamin Voisin aktoreak, aldiz, beste modu batera adierazi du sukaldariaren garrantzia: “Gaur egun 100 milioi ikustaldi izango lituzke TikToken”. ●

Aurpegiko tatuaje bakanak

Duela mende bat Perun aurkitutako momia baten aurpegiko tatuajeak aztertu berri dituzte. Emakumezko baten momia da eta 800 urte inguru ditu. Adituek ez dakite zer funtzio zuten tatuaje horiek, baina oso bereziak direla nabarmendu dute. Batetik, aurpegiko tatuajeak, batez ere masaila-koak, ez dira batere ohikoak, eta trebezia

handiz egindako marra zuzenak ere ez. Baina erabilitako pigmentuengatik bereizten da nagusiki. Antzinako tatuajeetan egur-ikatzaz zen pigmenturik erabiliena eta andetar momia honetan ez dute horren arrastorik topatu. Horren ordezt, magnetita edota piroxenoak aurkitu dituzte, egungo kosmetikan ohikoak diren osagaiak. ●



MANGIAPANE / JOURNAL OF CULTURAL HERITAGE

SASOITU

ONGI ETORRI,
ENTSALADEN AROA!

**AMAIA DIAZ DE
MONASTERIOGUREN OSINAGA**
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

ntxaurrendoa ekainean emango du bere fruitua. Lan bikaina egin du, esfortzuak merezi izan du.

Lehen beroaldiekin zirkulazioak eta bihotzak zaintza bereziak behar dituzte. Garrantzitsua da hidratazioa mantentzeko neurriak hartzea –ura, infusioa eta saldak– eta fruta eta barazkiekin elikadura plana aberastea. Salda diuretikoak oso gomendagarriak dira, oinak eta hankak arin edukitzeko. Gatz eta olio gabe prestatuak, tipula, baratxuria, porrua eta perrexilarekin prestatutakoak.

SASOIKO ENTSALADA KOLORETSU, FRESKAGARRI ETA PRAKTIKOAK

Hilabete honetan nire helburua sasoiko eta bertako fruta eta barazkiekin prestatutako entsalada gozo eta nutritiboak prestatzeko ideiak ematea da. Baratzeak edo ortuak kolorez beteta daude, hona hemen ekainean aurkituko ditugunak: piperrak, tomateak, kuiatxoak, lekak eta uraza bezalako barazkiak bere unerik onenean daude, testura, zapore eta mantenugai ugari eskaintzen dituzte. Fruta hauek ere jan ditzakegu: albertxikoa, meloia, sandia, mugurdia, ahabia, arana, platanoa, gerezia, ahuakatea eta mertxika.

Zertan laguntzen gaituzte entsaladek? Entsaladek udan gorputza hidratatzen, freskatzen eta digestioa hobetzen laguntzen digute. Entsaladak aberatsak dira bitamina, mineral eta konposatu antioxidatzaileetan.

Entsaladak modu egokian murtxika



tzen baditugu eta otorduaren hasieran jaten baditugu, asetuta sentitzen eta digestioa hobetzen lagunduko digute. Mastekatzeko arazoak dituztenentzat edo jateko denbora gutxi dutenentzat, kantitatea eta plateraren neurria zaintzea komeni da, digestio arazoak ez izateko. Entsaladak polikiago jateko, gomendioa da gose garenean lehenik saldak eta zopak hartzea.

ENTSALADA PERFEKTUA PRESTATZEKO PAUSOAK

Osagaien eta kantitatearen arabera, entsalada izan daiteke lehen platera, osagarria edo plater bakarra.

Jarraibidea:

1. Entsalada lehen platera izango bada, jarraitu 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 puntuak. Aldiz, entsalada plater bakarra izango bada, gehitu 7. puntua.
2. Aukeratu garaiko barazkiak: hostoak (uraza, kanonigoak), tomatea eta leka (egositak).
3. Eman kolore ukitu bat: azenarioa (gordina, egosia), erremolatxa, hainbat koloretako piperrak (gordinak, labean erreak, kontserbakoak), zainzuriak, errefautxoak...
4. Ausartu fruta eta lore jangarriak gehitzen. Testura eta kolore erakargarriak lortuko dituzu. Gogoratu begietatik jaten dugula.
5. Platerak apaintzeko kurruskariak gehitzea oso egokia da: fruitu lehorrak, germinatuak, haziak. Karbohidratoak platerera gehitzeko modu hauek daude: patata txiki bat, arroza edo pasta koilarada batzuk eta ogi xerra.
6. Gozatu entsalada. Limoi zuku edo ozpina, koipeak (ahuakatea, olioia, alio-lia) eta hainbat saltsa ditugu aukeran, adibidez, jogurt saltsa. Entsalada ez hondatzeko, nire gomendioa da bakoitzak bere entsaladari gozatzekoak jateko momentuan gehitzea da.
7. Proteinak beharrezkoak dira, zure entsalada osoagoa eta asetzaileagoa izateko. Hona hemen ideia batzuk: arrautzak, lekaleak (ilarrak, txitxirioak, babak), hegazuak edo sardinak kontserban edo haragi zuriak (oilasko egosia edo plantxan) gehitzea. ●

A ZE FAUNA!

EUSKAL HERRIKO MUSKERRIK HANDIENA



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA



IÑAKI SANZ-AZKUE

Gorputzeko ezkatat kolore berde bizikoak ditu; biziak eta deigarriak. Eta horiekin nahasten dira, sare bat osatuko balute bezala, orban beltzak, bizkar osoan zehar. Gizakiaren begietara gardatxoa gardatxo egiten duena, ordea, saihe-tsean aurkituko dugu. Bertan, lerrokatuta, biribil formako ozelo urdin ederrak ageri dira. Berde bizia, beltza eta urdina. Gardatxoa jantzi eleganteko muskerra denik ezin ukatuko dugu, beraz.

Trajea, baina, txikitatik zaintzen du musker honek, eta gazteak direnean ere ez dira gutxiago izaten: ozelo urdinak eta zurixkak, eraztun beltzez inguratuak, gorputz osoan zehar dituzte sakabanatuta, eta gorputzaren kolorea uniforme izan ohi da, orban biribilak are eta nabarmenago dituela.

Gardatxoa bero zalea eta lehor zalea da. Horregatik, Euskal Herrian, eremu mediterraneoan aurkituko dugu, Araba eta Nafarroa hegoaldean, batez ere. Ipar Euskal Herrian ere, muga-mugan dute animalia hau. Izan ere, Landetako (Frantzia) kostaldean gardatxo populazioak aurkitu daitezke, dunen atzealdeko landaretza artean. Iberiar penintsulan oso zabalduta dagoen espezie hau, Frantziako kostalde atlantikoan eta mediterraneoan gora igotzen da pixka bat. Mediterraneoan, Italiara ere iritsi arte.

Gorputz berdeari esker, oharkabeen igaroko da landaretza artean, baina ha-

GARDATXOA

Timon lepidus

TALDEA: Ornoduna / Narrastia.

NEURRIA: 242 mm isatsik gabe eta 754,5 mm isatsa barne, gehienez.

NON BIZI DA? Gune lehorretan. Eremu harritsuetan, landaretzarekin.

ZER JATEN DU? Ornodun txikiak batez ere, eta tamaina txikiko ugaztunak, narrastiak eta hegaztiak.

BABES MAILA: Interes bereziko izendatua EAEn.

rri edo arroka artean azaltzen denean, arreta deitu ohi du. Eta hori bera da musker honek maite duen bizitokia: harkaitzez eta landaretzaz osaturiko gu-neak ditu gustuko. Hala, harri handien azpian ezkutatu ohi da maiz, gaua igerotzeko edota bero handiko orduetan, atsedean hartzeko. Tamaina txikiko landaretzaren artean ere aurkituko dugu, ordea. Berdea berdean ezkutatu da, kontrarioen begietara.

Baina gardatxoak nabarmenezko ezer badu, hori bere tamaina da. Euskal Herriko muskerrik handienaren domi-

na ezin kenduko dio inork. Europakoa ere izan zen garai batean, baina azken urteetako ikerketa genetikoek Sierra Nevada gardatxoa eta gure gardatxoa bi espezie direla erabaki dute, eta handienaren titulua Sierra Nevada gelditu da. Europako zilarrezko dominarekin konformatu behar.

Euskal Herrian, alabaina, pozik egoteko motiboak baditugu gardatxoarekin. Izan ere, azken urteetan, ezagutzen ez zen populazio bat aurkitu da, Gipuzkoan, Araotzen (Oñati). Lurralde horretan aurkitu den lehen populazioa da, eta oraingoz, bakarra. Araotzeko kareharritzko horma lehorren artean eta Arabatik gertu, gardatxoak bere bizitokia aurkitu du, baina hori gutxi balitz, oso gune interesgarri bat ere azaldu da iker-tzaileen begietara. Izan ere, Araotzeko pareta zaharretan Euskal Herriko hiru muskerak bizi dira batera: musker berdea, Schreiber muskerra eta gardatxoa. Kontatu genuen argia.eus webgunean dagoen artikulu honetan: *Hiru muskerren topaleku bakarra*. Laborategi natural bikaina dago bertan, beraz, hiru espezieen beharrianak aztertzeko eta zergatik ez, klima aldaketaren eraginak muskerren jarraipena eginez neurtzeko.

Adi egon beharko dugu, beraz, datozen urteetan gardatxoak hartzen duen bidearekin. Bere pausuak jarraituta, agian, klima aldaketaren norabidea ere ikusteko aukera izango baitugu... ●

SUA LOTZEN DUEN LOREA




JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Egurra lorarazteko gai da. Egurra lore bihurtzen du, bai, izan zurgin, arotz, zur-langile, zur-lantzaille, maiasturu, benutzer edo menuser, zur-apaintzaile, zur-egintzaile, zuharotz, zurgile, zurgin-neska edo zurgin-mutil denak. Arituko da zurgintzan, zurgingoan, zuharozkintzan, maiasturugoa, maiasturuntzan, arotzeritzan, arotzian edo aroztintzan zurgin-olan. Zurginak artezko (*Quercus ilex*) kaxan duen marrusketa esku artean gozo-gozo bermatzen duenean eta egurrean pausatzen, arnas sakonxeagoa hartu eta aurrez marrazak zertxobait findu duen piezan bultzadizo arina eraginda fin-fin eramango du besoen luzerak ematen dioneraino; egurbidean marrusketaren mihiak, zorrotzaren zorrotzez egur xafra, mehe-mehe ia garden, airean gora kiribilduz lorea ernatuko du. Aroztegiari leihoko errainu etzanak argiztatu eta erakusten duen zerrautsez zirripiztindutako airean loratzen da egurra. Egurrearen lore horri txirlora esaten zaio, baina baita txirbil, txiri, txibiri, txiribiri, txirinta, txirrika, txirripizta, bonbona, kizkur, zirtzil, zirripil, xirringil eta zirringil ere; loreak txikiak badira txoskinak, txutxukakinak edo txurustakinak eta handiak badira txurustak dira. Lore itxia beharrean, zenbaitetan, oso irekia edo uhal tankerako zinta osatzen da, eta orduan xingola esaten zaio. Marrusketaren mihiak ez baizik eta labanaren mihiak eginak badira, zitxuketak edo zintxuketak dira. Ez dakit zorrozkaileuak arkatzaren punta pikatzaren duenean eratzen duen petalo ertzak arkatzaren azalaren kolorekoak dituen lore xutak zer izen ote duen. Inork baleki, gustura ikasiko nuke.

Txirlora fina sua egiteko gai egokia da, sua lotzen du erraz, baina etorri ahala joaten zaio, gar lasterra du. Txirlorak edo bonbonak egiten duen suak bonbonadak sor ditzake, gar handiak. "Amodioaren suzko bonbonadetan irazekita" aurkeztu zigun maitale beroren



Eper-begiak, zainak eta kondotxoak hagin ohol batean.

JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC-BY-SA

baten egoera Gregorio Arruek, 1888ko *Mayetzeco ill edo Birgina chit santari consagratutaco Mayetzeco illa* liburuan.

Egurrari lorea kentzen zaionean, zur bihurtzen da, landua da; jantzi egin dela esan daiteke. Landuz leundu da, hasieran aizkorak, gero opaitzurak, trabesak, marrazak, trintxak, kubiak eta marrusketak, eskuz esku denak, pasaeraro egurra igurtzi eta txukun zurtzen ari ote den igarriko dion esku horrek.

Mihi txorrotxenekin leuntzearen fintzez, egurrearen azala zena uki gozo eta atsegineko zur-mintz bihurtzen duenean, egur bakoitzak berezkoak dituen akats, huts eta makurrak axaleratzen dira. Horiek zurginaren gustukoena. Egur batek erakutsiko dituen arrasto horiek ez ditugu beste batean atzeman-go, bereak eta bakarrak dira. Zurginak eraikiko duen zurezko pieza horren osagai bitxiak. Jende askok ikusi ere egingo ez dituenak, baina zenbaitentzat zur hori urrearen parera eramango du-

tenak. Bereziatasuna, bakantasuna, ohiz kanpoko bikaintasuna, gorabehera, irregularra, berebizikoa, nabarmena, bestelakotasuna, aldea, heinik gabeko bederekoa, horiek denen bila ariko da zuretan eskua.

Eta zuretan edertuko dira zoka, sustarri, eten, zulotxo, adabegi, zain, hari, kondotxo, alaka, begizta, adapo kuskur, adañi, adarrondo, atze-nini, arakaitz, arakaitz-trosko, troskote, trunpilo, garritxa, gargail, urrubi, porrilla, arakondo, bizien, txoskor, txurru eta txurro, lakar, gaztaina-titi, oilaur, zarakar, mozkor eta tipula. Niri gehien gustatzen zaidan akatsa eper-begia da, batez ere haginarena (*Taxus baccata*). Eta hegazia aipatuta, Martin Itziar Agirre azkoitiarrak 1966an argitaratutako *Txoriak: Gure txoriak* liburuan jaso zuenez, garra-poari "arotz-txori" ere esaten zaio, eta okilak arotzak dira: arotz handi, arotz txiki eta arotz gibel-zuri. Zurgin ez baina arotz bai. ●

BELARDI

“ADMINISTRAZIOAK EGITEN EZ DUENEZ, GUK BULTZATU DUGU HILTEGI PROIEKTUA”



GARAZI ZABALETA



2024ko irailetik martxan dute Urduñan Belardi hiltegia eta haragi-eraldaketaarako gunea. Elikadura burujabetzaren bueltan herrian urte askoan egin duten prozesuaren ondorio da proiektua, Bedarbide abeltzainen elkartek bultzatu duena. “Sektorean egindako ikerketatik, hausnarketa argia egiten genuen: edo baserriak errentagarriak izateko eta zikloak ixteko lanabesak sortzen ditugu, edo desagertu egiten gara”, azaldu du Mikel Kormenzana Okeranza elkarteko kideak eta egitasmoaren bultzatzaileak. Azpimarratu du administrazio publikoak bultzatu behar lukeena ari direla elkartetik egiten.

EKOIZPEN KOSTUAK JAITSI ETA ETEKINAK IGO

Duela ia hogeita urte abiatu zuten ekimena, eta alaitari bat kontratatu zuten baserri bidez analisi tekniko-ekonomikoa egiteko. “Ondorio oso logikoak atera ziren ikerketa hartatik: ekoizpen kostuak jaitsi beharra zirela eta produktuei balio

erantsia emanda etekinak igo”, azaldu du. Bultzatzaileek hasieratik argi zuten nekazaritza eta abeltzaintza eredu txikiaren eta jasangarriaren alde egingen zutela. “Gakoa zen ea nola egingen genuen jauzi ekoizpenetik elikadurara, alegia, nola lortu zikloa osatzea behi bat haztetik xerra bat edukitzera”, dio. Urduñako elikadura estrategian murgilduta zegoen garaian udala, eta Bedarbideren lana estrategia barruan txertatu zuten.

Hainbat eredu ezagutu dituzte proiektuaren bultzatzaileek urteotan Europan. “Formazioak egin ditugu eta hartu-emanak izan ditugu hiltegi txikiekin, zatitze gelekina eta haragi-obratzaileekin. Italian, Austrian eta beste hainbat tokitan egon gara esperientzietatik ikasten”. Guztia, Urduñarako eredu propioa pixkanaka diseinatzen joateko. Bidean, baina, arazo nagusi bat zuten alor legalean: Europa mailan bazegoen haragia eraldatzeko osasun legera zuzentarau bat, proiektu txikiei malgutasuna ematen ziena, baina Espainiako estatuan eta Hungarian ez

zen malgutzera hori aplikatzen. “Dekretu horren aldeko plataforma sortu genuen estatu mailan, eta azkenean, 2020ko abenduan onartu zuten dekretua”, dio. Ordurako, proiektua nahiko landuta eta zehaztuta zuten Urduñan.

HILTEGIA, ZATITZE GELA ETA ERALDAKETARAKO OBRATZAILEA

Hiltegiak gain, zatitze gela eta obratzaile txikia ere martxan dituzte Belardin, eta hurrengo pausoa sukaldea abian jartzea izanen da, elikagai prestatuak egin ahal izateko. “Instalazioak irekiak dira berez, edonork erabil ditzake, baina bazkideek lehentasuna eta abantailak dituzte”, azaldu du. Urduñako 32 ekoizpen dira elkarteko bazkide, baina kanpotik ere abeltzain asko datozela dio kideak: Bizkaiko kostaldetik, Arabako mendialdetik...

Bestelako berezitasunak ere badu Belardik, izan ere, ez du kortarik, eta beraz, animaliak hiltzeko momentuan bertan eraman behar dituzte abeltzainek. Hiru langile ari dira proiektuan lanean gaur egun. ●

Oraina
ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!



Nafarroa, lurralde ekologikoa 2025

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak








Hitz gezidunak

*Gaia: *ibilaldia 2025*

BIZKOR ----- BITXIA DEN GAUZA	↓	* ABESTIA EGIN DUEN TALDEA ----- TXIRRIN	↓	HEGAZTI MOTA ----- ITOLARRIA SENTITU	↓	TAMAINA HANDIKO HEGAZTIAK ----- EGUZKI	↓	SINDIKATU ABERTZALEA ----- BOKAL PUNTUDUNA	↓	MALDA HANDIKO ALDAPA ----- NAFARROAKO MENDATEA * IKASTOLA	↓	LUZARO ----- SOILIK	↓
NERBIO ZIATIKOAREN HAUTURA ----- SINBOLOARI DAGOKIONA	→							AURREZ OXIGENOA	→	↓			
↓								↓		ARLOA DAUKA	→		
KATALUNIAKO IBAIA	PARE BAT INOLAKO	→								LAWREN-TZIOA ----- PATXARANA EGITEN DEN FRUITU	→		
↓	↓		OHITURA					ZENBATEKO (LABURDURA) MATERIALA	→	↓			
ZUHAUR SUARI DARIONA	→		↓					↓					
↓		SUFREA BURDINOLAK	→					ISLANDIAKO DOMEINUA ONTASUNEZ	→		NEWTON JANAK ERRETZEKO TRESNA	→	
OHARTA-SUNAREN ETENALDIA ----- * HERRIA	→	↓		... EGIN, ERABAT ASE BEGIRADA (ALDERANTZIZ)	↓	ABIATZEN DA BIHARAMUN	↓	ARRAUZKARA	→	↓			ZUHAUR (ALDERANTZIZ)
↓				↓		↓		NEU, NIHAUR LETRA IZENA	→				↓
ITSASBAZTERREKO HEGAZTI ----- KOKOTSAREN AZPIKO ALDE	→				JABERIK EZ DUENA FOSFORO	→		↓					
↓					↓		EZINIK	→					

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

8	4	5			1	6	9	
3		9	2	4	8	7		5
	1	2			9	4		
	8	6		5	4	9		1
9	5							7
	7			3	2	5		
6			4					
	9							4
1							7	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Mingots, min.
2. Kartela.
3. Azal mehe, gia.
4. Itxiera.
5. Nafarroako udalerria.

EBAZPENAK

5X5:
SAMIN
AFIXA
MINTZ
IXTEA
NAZAR

6	9	2
8	4	5
3	6	7
1	2	5
7	1	4
2	6	8
4	9	3
5	7	1
3	8	6
1	5	9
4	2	7
7	3	8
2	6	5
5	1	9
8	4	7
9	3	6
7	1	5
5	4	9
6	7	2
3	8	1
1	9	4
4	7	1
2	5	3
8	6	9
7	3	1
1	4	8
2	9	5
5	7	6
3	8	4
6	1	2
9	5	7
4	2	1
7	3	6
1	8	9
2	5	4
4	7	3
8	1	6
9	6	2
5	3	7
7	4	1
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5
4	7	6
2	5	3
8	1	9
6	4	2
9	3	7
5	7	1
3	8	4
1	2	6
4	9	5
7	6	3
2	5	1
8	3	7
9	1	4
6	4	2
5	7	9
3	2	8
1	9	5

Z	E	N	I	Z	E		E	P	S	O	K	O	K
E	B	E	G	E	B	A	J		O	I	K	A	K
U	A	R	E	N		O	A	K	A	D	A	L	G
	L	B	A	O		D		O		A	O	L	
N		I	S							S		K	E
A	I	A		E						U		Z	
O	K	Z									R	E	L
R	L		D	U							I	B	
A		G	A		O	K	I	L	O	I	N	I	S
Z	I	O				A	I	K	A	T	I	Z	
U		K	O	Z		E	K	E	R	X	I	B	I
L		P		L		A		O		O		B	



Hitzik gabe

 GORKA INTXAUSTI ARANGUREN  LAIDA ZAPRE

Etxebizitza eta elikadura egituren aldeko Tira jaialdiaren laugarren edizioa dugu gaur Gasteizko Alde Zaharrean, eta bakarren batzuk goizeko 10:00etan elkartu gara Korda espazio autogestionatuan, hura atondu eta musika-ekipoa muntatzeko. Eguna luzea izango dela badakigu, eta nagikeria puntua ageri dugu bisaletan. Azken estres-kolpearen eraginez, ez dugu lasai lo egiteko tarterik izan bart. Gainera, eguraldiaren aurreikuspena tarteko, zail da jakiten gauzak *ondo* ala *gaizki* irtengo diren. Eskerrak terapiari. Behintzat, ikasi dugu beldurrari kontra egin ordez, eskutik heldu eta bidea harekin batera egiten.

Eskaintza politikoaren ondotik –herri-egiturei buruzko mahai-ingurua– iritsi da musikaren eta muralgintzaren ordua, desalojo arriskuan den arren, oraindik herriarena den espazio hone-tan. *AZETangana!* aritu da biniloak pintoatzen auzokideek pareta pintatu duten artean. Jendea eta brotxak dantzan, as-

paldiko zein gaur egungo punkaren, rockaren, postpunkaren eta abarren erritmoan. Hormako eta hormaren ondoko kolore nahasketak are ederragoa dirudi eguzkitan.

Goizekoak bukatuta, Auzolana frontoian jende andana bildu gara bazkal-tzen; batzuek ez dugu tarte handirik izan hizketarako, alta, bostetan gaztetxean baikenuen hitzordua Mark Dutikoekin. Hurrengo hiru orduak, kable, mahai, plater eta kutxen joan-etorri kaotikoa.

Arratsaldeko kalejira bukatu bezain laster, berriz ere musika erdigunera. Goizean bezalatsu, kontzertu aurreko beroketa saioari ere Bilboko kuadrillak jarri dizkio notak. Bidenabar, erakutsi dute erregistro batean baino gehiagotan aritzen direla gustura. Jendea oraintxe iritsi da, eta gaztetxea dantzan ari da dagoeneko.

Gaueko hamarrak jo berri oholtzaratu dira Martin, Mala eta Verdu mui-noko etxeko taulara. Haien izenetatik eratorria da Mark Dutirena, eta azken

AZETANGANA! ETA MARK DUTI

NON: Tira IV jaialdia, Gasteizko Korda espazioan eta Gaztetxean.

NOIZ: maiatzaren 10ean.

horri gertatutako pasarteen soinu-ban-da da haien musika. Hiru kanta baino ez dituzte –luzeak, noski; bi abesti eta 38 minutuko diskoa kaleratu zuten iaz, pentsa–, baina lehen akordetik erakarri du entzuleen arreta haien stoner eta post-rock ukitudun rock progresiboak. Batek baino gehiagok atera du poltsiko-tik gitarra ikusezina; bat baino gehiago egon da ordubetez hemen ez den beste lekuren batean, begirik kliskatu ere egin gabe, haiei so.

Spoiler: instrumentala da. Ez da kantatzeko kontzertu bat. Entzuteko eta dantzatzeko kontzertua da hau, eta esango nuke, goian eta behean, bietan asko gozatu dugula. Agian xehetasun horrek ilustra lezake beste ezerk baino hobeto gaur egun osoan zerk elkartu gaituen. Beste esfera batzuetan etsairik handienak ere hitz bertsuekin mintzo diren arren, ahotsik izan ohi ez duten herri-egituretan sarri ez da hizkuntza berean hitz egin beharrik ere izaten norbaitek eutsiko zaituela jakiteko. ●

“ ”

Irakurleok elebidunak gara, eta kanpoko literaturaren zati bat soilik irakurtzen dugu euskaraz

Isabel Etxeberria eta Maialen Berasategi
Munduko Poesia Kaierak

2014an sortu zuen Susa argitaletxeak MPK *Munduko Poesia Kaierak* bilduma, beste hizkuntza eta lurralde batzuetako poetak antologia-formatu zainduan euskarara ekartzeko asmoz. Ordutik, 53 kaier eman dituzte. 2021etik bildumaren

zuzendaritzan ari dira Maialen Berasategi eta Isabel Etxeberria, eta eurekin batu gara, haien lan-dinamikaren, orain arteko jardunaren balorazioaren eta euskal itzulpengintzaren egoeraren gaineko irakurketen berri eman diezaguten.



LEIRE VARGAS NIETO



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

2014an sortu zen MPK, eta 2021ean hartu zenuten zuek bildumaren zuzendaritza-lekukoa. Zelan suertatu zen egoera?

Isabel Etxeberria: 2020an esan zuen Beñat Sarasolak erreleboa nahi zuela, ordurako ja 30 kaieretik gora argitaratuta zirela. Beraz, Susa barruan nork ordezkia zezakeen pentsatzen hasi ziren eta, nondik nora oso ondo ez dakigula, gudan pentsatu zuten. Eta guk, tira, ba baietz. Beldur pixka batekin eta ardura pixka batekin; ziurrenik inpostorearen sindromeak jota ere bai...

Maialen Berasategi: Eta ilusioz!

Etxeberria: Bai, noski. Hala eman genuen baiezkua, 2020ko udazkenean. 2021ean aritu ginen guk editatutako lehenengo kaierak lotzen, eta 2022an argitaratu ziren.

Zelan banatzen duzue lana?

Berasategi: Erabaki nagusiak beti elkarrekin kontrastatzen ditugu, baita txikiak ere askotan. Baina, normalean, labealdi bakoitzeko bi liburu izaten di-

tugunez, bakoitzak nagusiki horietako baten ardura hartzen du. Orduan, lan berberak egiten ditugu biok, baina banatuta, bakoitzak liburu batekin. Betiere koordinatuta eta bat eginda. Eta gero handik eta hemendik sortzen diren lan txoak banatuz joaten gara: gaur zu, bihar ni, besteetan biok batera...

Martxoan, Gasteizko Ignacio Aldecoa ipuin literarioaren jaialdiaren baitan, ipuinen itzulpengintzaren inguruko mahai-ingurua izan zenuten, Isabel. Bertan galdetu zizueten itzultakoaren eragina nabaritzen ote duzuen harrezkero euskaraz sortzen denean, eta zintzoki esan zenuen ezetz, hain txikia dela euskarazko irakurlegoa, eta hain mugatua itzuli eta argitaratzeko gure ahalmena ere... Hori gutxi balitz, beti esaten da poesia ez duela inork irakurtzen. Beraz, zer helburu edo beharri erantzuten dio halako bilduma batek?

Etxeberria: Mahai-inguru hartan askotan gertatzen den egoera eman zen:

hiru ipuingileren itzultzaileok gonbidatu gintuzten ipuingileon literaturaren inguruan aritzeko, eta momentu zehatz batean galdetu ziguten ipuingile horiek euskal idazleengan izan duten eraginaz. Horrelakoetan, iruditzen zait halako hitzarmen inplizitu bat egiten dugula denok —hizlariok, galdetzaileak, entzuleek—, hitz egiten dugula benetan eragin hori gure itzulpenen bitartez iritsi izan balitzaie bezala. Eta badakigu ezetz, eta arrazoi oso sinplea da: guk itzultzen duguna oso murrizta da, kopuruan. Euskal idazle batzuei iritsiko zitzairen Carverren eragina euskarara itzulita dauden bi liburuen bitartez, baina Carverren obra osoa gaztelaniaz eta frantsesez itzulita dago. Hau da, errealitatea da euskal irakurle guztiok, euskal hiztun guztiok, elebidunak garela, eta kanpoko literaturaren zatitxo bat bakarrik irakurtzen dugu euskaraz.

Berasategi: Eta ez da kopuru kontua bakarrik, baizik eta noiz hasi ziren euskal itzulpenak eta noiztik datozen erdarazkoak. Batez ere, adin batetik gorako

jendearengan pentsatuta: garai batean ez zeukaten euskaraz, ezta orain daukagun gutxia ere.

Etxeberria: Alde horretatik, badirudi panorama ezkorra dugula parean: zer eragin gutxi duen euskal itzulpengintzak euskal literaturan; ez gara askora iristen, ez itzultzaileak, ez editoreak... Irakurle aldetik ere ez dugu masa handirik... Baina, bestetik, alde ona ikustearren, igual xalotasunez ari naizen arren, iruditzen zait euskarara itzultzen den horrek, sinbolikoki bada ere, baduela garrantzia euskal irakurleen artean. Hau

“ ”

Euskararako itzulpengintzak pixka bat linternarena egiten du, fokatu eta erakusten du non jarri behar dugun arreta



da, nolabait, euskararako itzulpengintzak pixka bat linternarena egiten duela, fokatu eta erakusten duela non jarri behar dugun arreta. Badira zenbait izen euskarara itzuli direnak azkenaldian eta, beharbada, euskal irakurleen artean, irakurle taldeetan irakurri direlako, sare sozialetan aipatu direlako... Tira, ez dut esango ahoz aho dabiltzanik, baina halako modatxoak-edo sortzen dira. Eta, alde horretatik, uste dut euskarazko itzulpengintzak egiten duela bere ekarpentxoak, baita bilduma honek ere.

Beñat Sarasola editore ohiak 2016ko elkarriketa batean esan zuen MPKek harrera polita izan duela, bai irakurleen, bai komunikabideen aldetik. Gaur egun, berrets daiteke Sarasolak esandakoa?

Berasategi: Nik uste dut oso jende leiala dagoela hartzaileen artean, eta harrera, oraindik ere, ez naiz ausartzen esatera handia denik, Isabelek oraintxe esan duenagatik, baina bada beroa. Bildumak honezkero hamar urte eramanda, izan zitekeen higadura bat, baina irakurleen aldetik esker ona jaso dugu, eta itzultzaileen kasuan ere bai.

Harrera berdintsua da kaier batetik bestera?

Etxeberria: Harpidetzatik kanpoko salmentak aztertuta ikusten da bestela ere ezagunak ziren izenak saltzen direla gehien. Proporzioan, poeta emakumezko gutxiago daude bilduman, eta salduenen artean emakume askoren izenak daude. Bestalde, beharbada poesia narratiboagoa egiten dutenak ere nahiko goian agertzen dira, edo, agian, poesia konprometituagoa egiten dutenak.

Berasategi: Beste genero edo arlo batzuetan aritu diren autoreek hain poesia-zaleak ez diren irakurleak ere erakarri ohi dituzte. Eta, gero, irakurle taldeek eta abarrek ere eragiten dute.

Han-hemen irakurri dut harpidedunen laguntzaz-eta lortzen duzuela bildumaren argitalpen-gastuak berdintzea. Hala ere, sektorean oro har gertatzen den moduan, itzultzailearen lana militantzia moduan egiten da batez ere, nekez atera baitaiteke ordain ekonomiko duinik egiteko beste liburu itzuliak argitaratzetik. Berdin editoreon lana.

Berasategi: Esan dezakedan bakarra topikoa da: afera hau ezin da inoiz bereizi,



ez bakarrik euskal literaturaren egoera orokorretik, baizik eta euskararen joera orokorretik. Estrategia global eta koordinatuak hartu behar direla argi dago. Eta badago jendea, teoriarik, behintzat, zeinaren lana hori den, beraz, horiek pentsatu beharko dute. Baina ez da haiena bakarrik, noski; besteok ere pentsatu beharko dugu zer egin. Funtzionatzen ari ote da egiten ari garena? Hein baten, bai, baina hutsuneak hor daude.

Etxeberría: Nik esango nuke, oso modu utopikoan, euskarazko eta edozein kulturatako literaturari presentzia handiago eman behar zaiola gizartean. Kultur programa gehiago egon beharko lirake komunikabideetan, futbolak ez luke programa bakarrenetako bat kendu behar aste batean bai eta hurrengoan ere bai... Hau da, planteamendua izan ordez, "jendeari ez zaio interesatzen; zertarako emango diegu?", izan dadila "emango diegu, eta horrela hasiko zaie interesatzen". Euskarazko ikus-entzunezkoetan, berdin. "Zertarako? Umeek gero Clan eta Disney Plus ikusten dute!". Tira, igual hori ikusten dute euskarazko ikus-entzunezkoak ez direlako nahikoa. Eta literaturarekin oro har gauza bera esango nuke. Ez dut uste inoiz lortuko dugunik gizarte bat non biztanleriaren %80 poesia-irakurleak izango diren, baina %5etik %10era, %15era pasa gaitezke poesiak benetan presentzia handiagoa badu egunerokoan. Eta hor politika kontzientziatuagoak egon beharko lirake.

Garazi Goldarazena itzultzaileak

MPKren ekoizpena aztertu zuen 2024an bere Gradu Amaierako Lanerako. Bertan ageri da hainbat hizkuntza eta herrialdetatik itzuli dela, itzultzaileen genero-banaketa aurretik baino orekatuagoa dela... Baina joerek eta botere-harremanek hor jarraitzen dute: ingelesa eta Europa nabarmentzen dira sorburu-hizkuntza eta -lurraldeetan, itzultzaileen erdia baino gehiago dira gipuzkoarrak... Modu orokorrean, zelan baloratuko zenukete orain arteko lana?

Berasategi: Alde batetik, bildumak kontzientzia bat izan du hasieratik, eta hori guk ere jaso dugu oinordetzan. Baina, jakina, horrek bere mugak ere baditu, bilduma planteatua dagoen modutik hasita: antologia-bilduma da, eta ez dira, gainera, edozein autoreren antologiak izaten, kanoniko samarrak izaten dira gehienak. Orduan, adibidez, beti bueltaka darabilgun kontua da zenbait hizkuntza eta naziotan, esaterako, literatura gehiena ahozkoa dela edo izan dela orainsura arte. Horregatik, edo beste motibo batzuegatik, Mendebaldean ez bezalako autoretzat kontzeptua daukate, eta beharbada ez dago itzultzeko izen handi bakarrik. Horrelako hizkuntzetatik ekarri nahi badugu zerbait, eta ez baldin badago halako autore nagusi bat, zer egin? Ekarri beharko genuke poeta-bilduma bat, eta salbuespena egin?

Etxeberría: Bestalde, datuek erakusten duten bezala, inertzia batzuk badaude hor, gudan eta bilduman parte hartzen duten itzultzaileengan. Ari gara inertzia

horien kontra saiatzen, baina gu geu ere eramaten gaituzte batzuetan. Orain arte, iristen zitzaizkigun proposamenak bildumarako modukoak baziren, baiezkoa eman dugu beti, inor ez dugu behartu. Bestalde, sumatu dugu, itzultzaileak gizonetzkoak direnean, oro har, erraz ematen digutela baiezkoa eta nahiko arin entregatzen digutela lana. Guk, agian, kopuru berdintsuan jo dugu emakume zein gizonetzkoengana, baina emakume gehiagok esan digute ezetz inpostorearen sindromeak jota, edo hasi eta utzi, beldurrez, edo bestela ere lan-zama handia dutelako... Faktore asko daude, aukeraketari dagozkionak, baina baita horrelakoak ere, bigarren mailakoak direnak baina oso garrantzitsuak.

Berasategi: Gainera, aipatu bezala, gu ez gara tematzen: emakumeak sartu nahi arren, ez diogu inori esaten emakume bat aukera dezala. Lortu nahi dugulako oreka moduko bat: sekulako lana da halako kaiertxo bat egitea, eta ordaina ere apala denez, itzultzaileak mimatu eta zaintzeko modu bat ere bada haiei ematea aukeratzeko askatasuntxo. Eta gero konturatzen gara horrek dakarren desorekaz. Ez dugu bertan goxo egiteko asmorik, baina inplikazio horiek guztiak daude tartean.

Zer erronkari heldu gurako zeniekete aurrerantzean, zentzu horretan?

Berasategi: Badaude hizkuntza, nazio edo herrialde batzuk, are, kontinenteak ere, ez daudenak islatuak. Hori da erronka nagusietako bat: ahots eta aniztasun



handiagoa islatzea. Ez politikoki zuzenak izateagatik edo ez-dakit-zer agenda politiko bete nahi dugulako, baizik eta, besterik gabe, munduko poesia kaierak direlako, hori delako izena eta helburua, eta horrek osotasuna eta kalitate handiagoa emango liokeelako bildumari.

Jatorrizko liburuekin ohituago gauda irakurleengana heltzeko emanaldiak-eta antolatzen direla ikustera. MPKetan oinarritutako hainbat zuzeneko egin dira, ordea; itzultzaileek sortutakoak, eta baita zeuek bideratutako Munduko Poeta Emakumezkoen Errezitaldiak eta Formol Laborategiaren Heriotzak Eduardo du izena obra ere. Zer ematen dio zuzenekoak testuari?

Etxeberria: Batetik, beharbada poesiara hain errez hurbilduko ez litzatekeen jende batengana irits gaitezke. Eta, bestetik, nik uste edozein esperientzia estetikori ematen diola plus bat kolektiboki bizitzeak. Zuk poema bat irakur dezakezu eta emozioak sentitu, baina, jendez inguratuta entzuten duzunean, eta ondokoari begiratu eta ikusten duzunean bera ere zure zirrara bera sentitzen ari dela... Hori beti da balio erantsi bat. Askotan ez da izaten horretarako aukerarik, baina uste dut oso gauza ederra dela.

Berasategi: Ahaztu gabe, gainera, poesiaz ari garela: poesia ahozkoa da jatorriz, errezitatua. Eta askotan ahaztu egiten zaigu. Paperean, zure bakardadean, lasai-lasai irakurtzea zoragarria da, baina nik uste dut poesiaren bizipen hori

“ ”

*Ez dut uste inoiz lortuko
dugunik gizarte bat
non biztanleriaren %80
poesia-irakurleak izango
diren, baina %5etik
%10era, %15era pasa
gaitezke poesiak benetan
presentzia handiagoa badu
egunerokoan*

osatzeko eta areagotzeko modu guztiz ederra dela zuzenekoa. Eta, horrez gain, zaleak direnekin topo egiteko modu polita dela ere uste dut.

Formol Laborategiarekin elkarlana da aipatutakoan artean berriena, eta antzokietan ikus dezakegu oraindik. Zelan sortu zen proiektua?

Berasategi: Pixka bat emozionatu ginen hamargarren urteurrenarekin. Ideia-ekaitz modukoa egin genuen, eta horrela atera zen aipatu duzun *Emakumezkoen Errezitaldiena* ere. Baina, horrez gain, nahi genuen zerbait betiko errezi-taletik aldentzeko —horri ere ezer kendu gabe—, zerbait pixka bat festiboagoa.

Etxeberria: Lehenengo kaier berezia

prestatu genuen, *Biziei ere omen* izenekoa. Printzipioz, hildako poetak bakarrik argitaratzen ditugu, haien obra osoaren ikuspegia ematea delako helburua. Oraingoan, baina, bilduman aurretik ibilitako itzultzaileei aukera eman nahi izan genien bizirik dagoen gustuko poeta baten ale bat ekartzeko. Besteengandik guztiz desberdina den kaiera izan zen emaitza: 39 itzultzaile, bakoitza munduko txoko bateko poeta bat aukeratuta, haien arteko loturarik gabe... Eta, poemak jasotzen ari ginela, enkargua egin genien Formol Laborategikoei, testuak hartu eta haiekin zerbait egin zezaten. Eta oso pozik gaud ezaitezarekin.

Berasategi: Azpimarratu nahiko nuke, badaezpada, tituluak titulu, emanaldi umoretsua egin dutela: mamitsua eta sakona izateaz gain, bizia eta dibertigarria.

Amaitzeko, esango diguzue zer poetari diozuen apeta, zein gustatuko litzazukeen kaier batean jasotzea noizbait?

Berasategi: Ni ez naiz bustiko izenekin, baina esango dut bildumak niri ere balio izan didala poetak deskubritzeko, eta gogoia daukadala hori egiten jarraitzeko; baita, lehen esan dugun bezala, beste genero batzuetatik ezagutzen ditugun idazleen alde poetikoa ikustekoa ere.

Etxeberria: Nik oso gustuko dut Wisława Szymborska. Badago poema-sorta txo bat argitaratuta han eta hemen, baina antologia oso bat euskaraz disfrutatu ahal izatea oso gustura hartuko nuke. Gainera, badugu erdi-lotuta ere! ●

ALEKSANDRA KOLLONTAI

‘BOLTXEBIKE MAITEMINDUA’

Panfleto arrosa bat

 PAUL BEITIA ARIZNABARRETA

Gutun bat iritsi da Ukrainako *Oberih* aldizkarira: “Erredakzio estimatua, interesa dakizuekeen zerbait dela-eta idazten dizuet”. Funtzionario bat da idazten duena, Antsyxkin I. V. delakoa, eta aurkikuntza handi bat egin duenaren poz eta urduritasunarekin idazten du. Egun, aldizkariaren izena *googleatuz* gero, “Ukrainako gerrak kaltetutako jendearentzat dirua biltzeko argitalpena” dela ageri da, baina gutuna jasotzen duten unean 1993a da, Sobietar Batasuna erori eta urte gutxira, beraz –gutunak “urriko kolpea” aipatzen du, sektore antisobietarrek erabili ohi duten izendapena–. “Nikopoleko Lurralde-Etnografia Museoko zaintzaile arduraduna naiz”, dio gutunaren idazleak. “Egunkari zahar batzuk errebisatzen nenbilela, arreta eman didan testu batekin egin dut topo. Neronek ere grinaz bildumutzen ditut zientzia fikziozko testuak, eta horregatik erreakzionatu dut berehala”.

Kasik ikusi egin daiteke funtzionario ukrainarra: bere lan aspergarri baina kuttunean murgilduta, laneko ordutegiz kanpo bere buru soildua nola makurtzen duen artxiboko orrietara, eta isilik nola irekitzen dituen begiak betaurrekoen aurrean testua topatzen duenean, eta nola pasatzen zaion une labur batez burutik une horrexegatik hartu zuela behinola bere lana. “Nire irudiko, garai sobietarrean Ukrainako lurraldean argitaratu zen lehenengo

zientzia fikziozko kontakizunaren testua topatu dut”. Testu hori Aleksandra Kollontairen *Aurki (48 urte barru)* kontakizuna da.

Jorge Luis Borgesek maite zuen artxibogile figura: liburutegi zaharretako langile xume eta nekagaitzarena, liburu ahaztuetan muturra sartu eta, batere espero gabe, altxor galduak topatzen dituen. Hala imajinatu zuen Kixotearen bestelako autore ezezaguna, eman zituen argitara existitzen ote diren jakiterik ez dagoen aldizkari ezezagunetako ohar eta komentarioak, inork inon topatu ez dituen literaturako gailurrak. Finean, Borgesentzat artxibogilea irakurlea da eta, beraz, idazlea ere bai –hura ere irakurlea baino ez den heinean–. Giza historia osoko literatura artxibo alimaleko bat da, eta irakurlea haren apaletatik paseatzen da, zer topatuko, haietan dagoen guztia sekula santan irakurtzera iritsiko ez dela ohartzen ez denaren inozentziaz. Ikuspegi horretatik, literatura ez da urrezko liburu kanonikoen multzoa, ahanztura handi bat baizik. Testu guztiak, ezagutzen ez ditugun gehienak ere, elkarri lotuta daude modu nahitaezkoan, eta lotura horretan existitzen dira, nolabait. Ahaztuta egon arren, badira: itzalpean daude zain, irakurle distraituren batek, kasualitatez, noiz topatuko eta berreskuratuko.

Hasierako pasadizoko irudiak zerbait argigarria esan nahi digulakoan

nago: funtzionario ukrainar aspergarri eta antikomunista bat da literatura iraultzailearen existentzia berreskuratzen duen figura.

Aspalditik pentsatzen dut literatur tradizio iraultzailean azterka dabilenak artxibogile borgestarraren bertsio partikularra osatuko lukeela. Aitortzen dut, gainera, ideia hori nabarmen indartu zitzaidala irakurri nuenean Stalini, bere izaera hotz eta eraginkorragatik, ingurukoek “burkide artxibogile” deitzen omen ziotela. Izan ere, literatura oro har baldin bada ahanztura eta itzalpea, zer ahaztuago eta itzalpekoago literatura iraultzailea baino? Milioika orri eta liburu argitaratu da iraultzaren egitekoagatik, etengabe zulo beltzera kondenatu dituzte, argudiatuz baliorik ez dutela, zaharkituta gelditu direla edo gainditu egin ditugula. Hala ere, aldiro haietara itzultzen dira be-launaldi berriak, beren garairako balioko dien zerbaiten bila. Eta artxibogile onenek bezala, aldiro topatzen dute balio dien zerbait.

Kollontairen testuak izan dira be-launaldi berriek aldiro berreskuratu dituzten horietako batzuk. 1872an San Petersburgon jaioa, komunista izan zen Kollontai bizitza osoan zehar. Boltxebikeen aldera batu zen, alderdiko komite zentralako kide izan zen Urriko Iraultzaren bezperetan eta, ostean, ministro egin zutenean, halako postu bat zeukan historiako lehenengo ema-

kumea izan zen. Indar egin zuen bereziki emakume langilearen auzian, eta ekarpen teoriko eta politiko garrantzitsuak egin zituen oso. Beste askorekin batera, berari zor zaio emakume langilearen ahalegin politiko bikoitza: alde batetik, mugimendu sozialistan bertan auziak benetan zeukan garrantzia hartu zezan egin zuen lan, eta bestetik, feminismo interklasistaren aurka egin zuen, emakume langilearen askapena klase askapenari eta gizarte sozialistaren eraikuntzari lotuta.

Hainbat testu idatzi zituen auzi horien argigarri, eta haren kasuan interesgarria da nola baliatu zituen fikzioa eta idazketa literarioa ere asmo ber horietarako. Kollontai idazlea ezezagunagoa da Kollontai politikaria baino eta, hala ere, argitaratutako garaian masiboki irakurriak izan ziren haren kontakizunak eta nobelak; besteak beste, arestian aipatu dugun *Aurki* (48 urte barru) kontakizuna, Mnemosyne editorialak argitaratua

eta sareetan dohainik ipinia, *Erle langileen amodioak* bilduma, Aroa Uhartek itzuli zuenetik euskaraz irakur daitekeena, edo aipagai dugun *Boltxebike* maitemindua, 1927an argitaratua lehenengoz.

Vassilissa emakume boltxebike gaztearen istorioa kontaktzen digu nobelak, eta Vladimirrekin daukan bikote-harremanarena. Genero-desberdintasunak erabat determinatutako harreman kaskarraren kontakizun bizi eta argiaren bitartez, Vassilissaren askatasuneranzko bidea ematen digu Kollontaiak eredu gisa. Baina gehiago ere ematen digu: elkartasunean oinarritutako maitasunari buruzko hausnarketak, borrokari eta konpromisoari buruzkoak, gizarte berriari buruzko ideiak ere ematen dizkigu. Eta hala bihurtzen da liburua, batere lotsarik gabe, nobela arrosaren eta panfletoaren arteko zerbait: panfleto arrosa bat.

Hain justu, bi izendapen horiekin baliogabetu nahi izan zuen kritikak Kollontairen literatura. Alde batetik, andrazko protagonistak zituzten amodiozko istorioak idazteagatik, “emakumeen gaitzat” hartuta, nobela arrosatzat hartu zituzten haren liburuak. Bestetik, asmo politikoak ere kritikatu zizkioten. “Propaganda-panfletoak idatziko bazenitu, gauza handiak lortzera iritsiko zinateke. Literaturan dohain gutxiago duzu”, idatzi zion kritikari batek XIX. mende amaieran.

Konstante bat da literatura estaleziutak sistematikoki baliogabetzea izaera militanteko idazketa, emakume-kondiziotik eginikoa bezalaxe. Annie Ernaux, bere *Idazketa labana bat da* ederrean, antzeko zerbaitez ari da “obszenitate bikoitza” aipatzen duenean. Gai sozialez eta sexualez idazten duenean aurpegiatzen diotenaz ari da, “estigmatizazio bikoitz bat, klase eta literatura popularrera itzularazten nauena”.

Dena dela, testuak izaera militantea badu,

izan. *Boltxebike maitemindua* nobelan, etengabe hitz egiten da militante politikoaren maitatzeko moduaz, eguneroko egiteko politikoek maitasunerako uzten duten tarte urriaz, horren nekeaz eta frustrazioaz. Idazteaz ere honela mintzo zen Kollontai: “Pena bakarra dut, ez dudala idazteko denborarik. Egun osoa joaten zait lanean, topaketa ofizialetan, hitzaldiak idazten eta abar. Eta nire idazketa bere horretan dago, geldirik... Baina, izan, horixe dut maitteena”. Arreta ematen du bi gaiei heltzeko modu bertsuak, maitasuna eta idazketa eguneroko eginbeharretatik aldentzen den gauza ber baten bi aurpegi balira bezala.

Izan ere, idazketa militanteak izaera partikularra du ez bere asmoagatik soilik, ezpada idazten duenaren bizi-moduagatik ere. Ez da berdin idazten horretan bakarrik aritzeko aukera izanda ala bilera politiko batetik bueltan, gauez, biharamunekoa lan eguna atezuan dagoela. Ernaux berriro ere: “Konbentzituta nago gure historiaren produktuak garela eta hori presente dagoela beti idazketan. Beraz, baldintzatzen dute familiako narrazioak, jatorri sozialak, kultur eraginek eta baita, jakina, sexutik eratorritako kondizioak ere. Emakume historia da nire, zergatik desagertuko da, ba, magikoki bezala nire idazmahaian, idazle purua soilik utzita?”. Eta ni, hark dioenarekin batera, konbentzituta nago militantearen idazketak ere desagertzten ez den zerbait lagatzen duela presente testuan.

Horregatik, liburu zaharrotara itzultzen den artxibogileak borrokarako grina topatuko du, asmoz eta izatez, testuan. Borrokari emandako bizitza bat presente. Topatuko du, *Aurki* kontakizunean, protagonista gaztea oihuka: “Bizitza borrokan dago, bilaketa beti-errebeldetan!”. Topatuko du, *Boltxebike maitemindua* nobelaren amaieran, Vassilissaren poza eta askatasuna, bere lagunari esanez: “Bizi gaitezen, Gruxa, bizi gaitezen!”. Eta artxibogileak, agian, balio dion zerbait berreskuratu ahal izango du ahaztuta egon arren badiren testuotatik. ●





LIBURUA

Utopia akuilu



AMAIERATIK HASI. EUSKAL FEMINISMOA, ALDAKETARAKO PARADIGMA

NAIA TORREALDAI
MANDALUNIZ

TXALAPARTA, 2025

AMAIA ALVAREZ URIA

Naia Torrealdei Mandalunizek *Amaieratik hasi. Euskal feminismoa, aldaketarako paradigma* saiakera argitaratu du Iratzar eta Txalapartaren Iparrorratza bilduman.

Ehun orrialdetan “euskal feminismoa” kokatu du, egungo egoeraren argazkia egin eta hurrengo urteetarako agenda zirriboratu. Kakotxen artean ipini dugu testu honen ikergaia batzuetan Euskal Herriko Bilgune Feministari buruz ari delako –hortik hitz egiten du eta hari hitz egiten dio– eta beste batzuetan Euskal Herriko Mugimendu Feministari buruz (hori da bere testuinguru hurbila, ezker abertzalearekin batera).

Egileak genealogiak aipatzen ditu eta bere burua horrela aurkezten du: “2010etik aurrera mugimendu feministan sartu garen guztiok (...) esperientzia

askotarikoetan oinarritutako borroken inguruko teorizazio garrantzitsuen osteko feminismoa bizi izan dugu”. Baina ez du asko sakontzen aurrekarietan.

Intersektionalitatea ere aipatzen du, bere argi eta ilunekin, eta “lekuan lekukoa eta unean unekoa” izan behar dela dio. Horren harira, feminismoaren “barne-tentsioak” dakartza eta “erronka nagusia da zapalkuntza askotarikoak bilduko dituen feminismo bat lortzea”, ondorioztatzen du.

Aliantzak beharrezkoak direla defendatzen du. Horregatik, bi dira azpimarratu dituen korapiloak: *emakumea* + *langilea* kategoriak eta *zuri* + *euskal* izaerak. Batetik, feminismoak eta marxismoak elkar elikatu behar dutela; bestetik, pribilegioak eta eskubideak bereizi eta eskubide kolektibo eta uni-

bertsalen borroka abiarazi behar dela.

Gehien interesatu zaidana izan da euskararen eta euskal kulturaren auzian nola posizionatu den. Bere ustez, mugimendu feminista “eztabaida eta kontradikzio marko bezala ulertu behar da”. Horrela zehazten du: “entitate kolonialisten parte izan gara, baina inperialismoaren albo-kalte ere bai”. Era berean, azaldu du euskal identitatea ez dela pribilegioa edo hegemonikoa, zurtasuna bai, ordea.

Eraldaketa soziopolitikorako utopia, abangoardia, ahizpatasuna eta komunitatea kontzeptuak berreskuratu ditu, besteak beste. Lehenak izenburua erditu du. Bigarrena, solaskide independentistak gogoan aipatzen du. Ahizpatasuna eta komunitatea dira, agian, egun, Euskal Herriko Mugimendu Feministan gehien landu beharrekoak. ●



MUSIKA

Xak: unibertso propio batera atea



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



XAK
XAK

MUKURU, 2025

XALBA RAMIREZ

Entzun baduzu eta ez bazaizu sobera sartu, esango nizuke: entzun berriro. Nire urteko disko kutuna izango dena egin berri du Paxkal Irigoyen baxenabartarrak, oraingo honetan, XAK izenpean. Eta egin kasu, antzekoa idatzi baikenuen 2021ean Bloñ bere proiektuaz, eta orain ari dira ari, sari eta areto bete.

Badirudi artista multiinstrumentista honek izena sartu duela kutxa batean, eta nahastu, eta hortik atera diren leterekin osatutako izen berria dela XAK. Musikarekin antzekoa egin ohi du Paxkalek: ideia, doinu eta estiloak sartu kutxa batean, nahastu eta hamaika kolore marraztu. Eta a ze kantu ederrak!

Paxkalek beti du buruan entzun ez duzun zerbait entzunaraztea. Belarrientzako formula errazenei iskin egin, eta

bueltaxka bat gehiago ematen die kantuei, doinuei eta konponketei, usadio eta konbentzioei ihes egiten. Molde batean ere ez da sartuko, gauzarik txikienetik hasita: “Batzuetan neguan, ez dut oreka aldatzen”.

Arrarokeriari lekua egiten dio Paxkalek ahal duen guztietan, baina oraingoan, inoiz egin duen disko politena egitea bilatu duela esango nuke. Politena zentzu estetikoan. Nola den posible moldetik ihes egin eta zerbait pausatu eta polita egitea? Hori Paxkalen magia.

Zeren hau ez da disko bat. Paxkalen unibertsoa sartzeko gonbidapen bat da. Lehenengo entzunaldian lortu ez baduzu, joan berriro. Mundu aberats baterako sarbidea da Paxkal, eta gero eta gehiago bidaiaitzen utzi, gero eta urrunago egingo duzu hegan.

Lasako Markotx Iribarnek honakoa esan san zuen Leire alabaren hiletan: “Izarrak mugitzen ikustean, kontzertu bat ematen ari zarela jakingo dugu”. XAKen negua eta izarrak presente daude, eta ezinezkoa da ez ulertzea disko hau dolauren zaporetik. Minetik edertasuna marraztu duen diskoa da XAK, eta bihotzari atximur iraunkorraz gain, etorkizun eder bat proposatzen du, ahaztu gabe bizitakoak, geure alboan egon direnak. Ze zortekoak Leire ezagutu genuenak.

Zauriak sendatu, suak piztu ditu mendietan Paxkalek –eta lagun garaztarrek–, “gauaren ilunean argi dezaten zerua”. Eta helburu eta aitortza: “Zu ziren lekutik ikus ditzazun, jakin dezazun, / Oraindik zure beha nizala oroitzapenetan”. ●

Ingelesak balkoitik

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Zer nahi duzue esatea, herri gisa aukera handi bat galdu dugula iruditzen zait. Bilbon jokatu den Europa Leagueko finalarekin, esan nahi dut. Berriz ere gauza bakarrarekin obsesionatu dira antolatzaileak –futbolarekin, alegia– eta, horren erruz, Euskal Herriko hiririk handiena ez da agertuko turista anglosaxoiek gehien maite duten *beste kirola* praktikatzeke lekuen munduko rankingean.

Pasa da. Inork ez du aprobetxatu. Are, *beste kirol* horren kontrako jarrera bortitzak txalotu dituzte hedabideek eta hemengo sare sozialetako erabiltzaile guztiz gehienek. Damutuko zaigu noizbait. Eta jada ez dauka erremediorik, baina ez naiz esan gabe geratuko: oso dezepzionatuta nago joan den astean Bizkaiko hiriburuan *balconing* kasu bakar bat ere erregistratu ez delako.

Jakingo duzue, noski, zer den bizi-raupen-kirol horren funtsa: Albion Zitateko biztanleek, atzerriara oporretara

joaten direnean, espiritua alaitzen duten edariak litroka zanga-zanga irentsi ostean, joera dute beren hoteleko gelara itzuli eta, amets etilikoetan murgildu beharrean, balkoitik jauzi egiteko, metro batzuk beherago egon ohi den igerilekuan erortzeko esperantzarekin. Ez naiz kasu batez edo biz ari: Erresuma Batuko atzerri gaietarako ministerioaren ohar ofizialetan ere abisatzen dute “balkoietan eta leku altuetan beharrezkoak ez diren arriskuak” hartzearen kontra –Alexander Popek burua altxako balu, poemaren bat eskainiko lioke afera honi fijo–.

Alderdi filosofikotik begiratzuz gero, esango nuke Francis Herbert Bradleyren idealismoaren eragina nabarmena dela *balconing*-a egiten dutenen artean: ezagutza enpirikoa baztertuz, egiaztat hartu ohi dugun guztia etengabe errebisatu daitekeela sinetsita, auzitan jartzen dute horrelako saltoekin bizitza arriskuan jartzen ari zarela dioen ideia.

Seigarren solairutik jauzi ostean uretan bukatzen badute, “*facts are inferential!*” oihuka aterako dira piszinatik. Eta bestela, materialismoa onartzea besterik ez zaie geratuko. Konkreteki, materia batek –igerilekua inguratzen duen porlanak–, beste materia batean –Manchesterren jaiotako 30 urte inguruko gorputzean– eragiten dituen bizi osorako lesioak.

Azkeneko hori nekez gertatzen da, dena den, balkoilariak filosofiaz aldatzeko erabili beharko luketen organoa, burmuina alegia, sarritan lurrean barreriatuta geratzen baita, atzo postrearen orduan mahaitik erori zitzaidan marrubizko jogurta bezala, plastikozko potoaren ordezkari lehertutako kaskezur bat jarrita –ugh, a ze irudia, barkatu–.

Total, gure zera nazioartekotzeko aukera galdu dugula berriz. Balear Uharteak izango dira segur aski, aurren ere, *balconing*-aren munduko erreferentzia. Geurea dugu erru guztia, ez inori ba errua bota eta abar, asuntu honetan kulpak berdin banatu behar baitira ezker-eskuin: non sartu ziren gure instituzioetako arduradunak joan den astean? Zergatik ez zen egon Areatzakako fanzonean pilotutako futbolzale ingelesentzat *From the roof to Ibaizabal with a bit of luck Basque experience* moduko ezer? Baina, era berean: herri mugimendua lo al dago? Aste Nagusiko megatxosna horietako aldarmioak berrerabiltzea besterik ez zuten, Billy Braggen *Jauzi handiaren zain* kantatu bitartean, englandarrak fruta umotuak bezala erortzen ikusteko, bata bestearen atzetik.

Nire kalkuluen arabera 200 bat geratuko ziren etxera bueltatu gabe. Eta gu txi irudituko zitzaizkien bilbotarrei, beti eskala handiagoan pentsatzeko duten joera horrengatik edo, besterik gabe, pazientziak gainezka egiten duenean, gainezka egiten duelako eta puntu. ●





Haur guztiek dute
superbotereren bat,
helduok hala ikusi ez arren.
Erabili behar genituzke
eskola-proiektua
diseinatzerakoan.

Liburua **16€**
+ Bidalketa gastuak



Koldo Rabadan egilearekin
hitzaldiak antolatzenko:
solasaldiak@argia.eus

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Atzokoak gaur



Erakusketa

Herri-musikaren artisaauak

San Telmo Museoa
2025-04-11 > 2025-06-29